

K...eta Kitto!

2019-XI-15

1119 zkia.

Herriaren soinu banda

ASTE BELTZA

%20

ko **DESKONTUA**
produktu guztietan




+ MONTURA DOAN zure betaurreko graduatuetan

2019ko azaroaren 30era arte baliozgarria. Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

RDS-175/15 I.L.C.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com   



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.200 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzeza hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa



Zumaiako Otezuri egoitzatik:
SD Eibarrek emandako gonbidapenei esker bertan bizi direnek Eibar-Celta partidua ikusteko aukera izan zuten. Bihotz-bihotzez **eskertu nahi diegu** kolaborazio hori, langile, familia eta, batez ere, egoiliarren partez.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOLTSO.- Moltzo edo pilo nahasia. "Salgei guztiak moltso baten jarri dittu".
Sukaldean, garbitzeko erabiltzen den trapu bustia. "Mahaia moltsuakin ondo garbitu".

astean esanak

"Hipokrisia handia dago prostituzioaren inguruan: zezenari ez diogu adarretatik heltzen, ez dago ausardiarik, baina osasun zerbitzu publikoak eskaintzen zaizkie prostituei puteroen emazteak ez kutsatzeko. Gurasoek semeei esan behar diete, zenbat eta lehenago hobe, putetxeetara ez joateko; harreman sexualak landu egin behar dituztela, ingurukoak seduzitu edo erakarri. Bitartean, masturbatzeko aukera dutela, baina emakumea ez erabiltzeko objektu gisa. Errespetu handiagoa, sistema elikatu beharrean"

(JOSE LUIS GARCIA, PSIKOLOGOA)

"Komunikabideak propaganda instrumentu eraginkorrenak dira eskumako ultren ideiak, periferian laga beharrean, gizartearen erdian kokatzeko. Ez dute ultren estrategia ulertzen: azken hauek ez dute inolako interesik ezer eztabaidatzeko edo debateak irabazteko. Bisibilitatea da bilatzen duten bakarra. Eta kazetaritza kaskarrak aukera hori eskaintzen die, audientzia irabazteko politikaren inguruan prestatzen dituen tertuliekin. Gaur egungo telebistak neutraltasuna eta zinizismoa nahasten ditu. Programa horiek arazo bat dute, debatearen simulazioa besterik ez direla, gezurrez betetako patologia"

(CAROLIN EMCKE, FILOSOFOA)

"Lanpostu batzuk betetzeko arazoak dituzten enpresen kopurua %70era heldu da gurean. Ez da denen kasua, ezta sektore guztietakoa, baina hiru euskal enpresetik bik zailtasun handiak dituzte langileak kontratatzeak. Enpresek eskaintako soldatak, ordez, ez dira hainbesteko arazo. Enpresa batera sartu berri den langile baten soldata garbia 1.500 euro da hilean, eta hamalau ordainketarekin. Eta ikasketa teknikoetan eta ingeniarietan, ia 1.700 eurora igotzen da soldata. Gure ekonomiaren sektore estrategikoetan pertsonen falta da arazoa, ez hasierako soldatak eta baldintzak"

(EDUARDO ZUBIAURRE, CONFEBASK)



Eibarrek Benigno Plazaolaren 60.000 argazkitik gora digitalizatzen lagunduko dau

Amaia Gorostiza Eibar Kirol Elkarteko presidentiak eta Miguel de los Toyos alkatiak Benigno Plazaolak 40.etik 80 hamarkada bitartean egindako 60.000 argazki baiño gehi-xago digitalizatzeko hitzarmena sinatu eben astelehenian Ipuruan. Holan, SD Eibar Fundazioak Plazaola famelixak lagatako materixal guztia digitalizatzeko prozesua diruz lagunduko dau. Irudixak balixo historiko haundixa dake, "lau hamarkadetan Eibarrek eta eibar-tarrok izandako garapena islatzen dabelako". Yolanda Ruiz Udal Artxiboko arduradunaren berbetan, "SD Eibarrendako altxorra da materixala, argazkixen %80 inguru foballarekin lotuta daguazelako". Benigno Plazaolak etaratako argazkixak ez eze, sasoi berian Javier eta Antonio Agirresarobe, Martin Romarate eta Javier Fernandez argazkilarixak egindakuak be zabaltzeko eta kontserbatzeko aukeria egongo da hitzarmenari esker. Eibarrek, bestalde, bere sare sozialetan, webgunian eta erakusketa eta museuan argazkixak erabiltzeko aukeria izango dau.

Euripian, baiña umoretsu, ospatu eben Gaztaiñerre AEK euskaltegiak eta lagunak

Astelehenian ospatu genduan Gaztaiñerre Eibarren eta, azken urtitan bezala, aurtan be kalejira eta ondra-janak tabernarik taberna antolatu dittue AEK euskaltegiak. Aurten, gaiñera, euskaltegiko ikasle "beteranuetakua" dan Marisa Guillermo Oses omentzeko aprobetxau eben ospakizuna eta, lora-sorta ederrarekin batera, 2017ko Korrikan berak lekukua hartu ebeneko argazkixa eta Mikel Arrillagak egindako bertsua jaso zittuan, pozarren. Ohikua dan moduan, Paloma tabernan alkartu ziran ikasle, irakasle eta lagunak eta, afarimerixendia egin eta kantu batzuk abestu eta gero, Eibarko Kantuzaleak taldekuak eta trikitalarixak lagunduta, erdialdeko tabernetara kalejiran juan zan taldia.



Marisa Guillermo omentzeko aprobetxau eben ekitaldixa.



Galiziako Etxekuak "magosto" ospatzen

Euripian egin dabe As Burgas Galiziako Etxekuak "festa do magosto" jaixa, baiña edozelan be, astebururako Urkizuko parkian ipiñittako txosnaren aterpian bildutakuak, gustora jan zittuen hantxe erretako gaztaiñak eta, Os Galaicos taldekuen musikarekin animauta, eguraldi eskasari aurre egin zetsen.

Txileko Los Lagos Unibertsitateko irakasliak gurian



Betty Roncero Bocanegra eta R. Pamela Tarabla Fernandez, Hezkuntza Berrikuntzarako sarixa eskuratu daben Txileko Los Lagos Unibertsitateko irakasliak Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalian egon ziran aurreko astian. Bisitan Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradu-ko ikasketa-plana eta eskolako laborategixak bertatik bertara ezagutzeko aukeria euki eben. Argazkixan, EHUko eta Los Lagos Unibertsitateko irakasliak.



Egogaiñeko bihargiñak gatazka konpontzia exijitzen

Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak mobilizatiñuekin segitzen dabe, "Gipuzkoako Foru Aldundiari Egogaiñeko gatazka konpontzia eskatzeko eta gure egoeria salatzen. Kokoteraiño gaiz eta benetako urtenbidia negoziatua nahi dogu".



Eraikin zati bat jausi eta gero, Arragueta kaleko 15. zenbakixa bota egingo dabe

Arragueta kalia, 15. zenbakixa dakan etxiaren zati bat jausi egin zan eguazten eguardixan eta, horrek eraginda, kalia trafikua eragozten eta oiñezkuendako moztu eben, kalera jausittakua garbittu eta segurtasuna bermatu bittartian. Udaletik jakiñarazi dabenez, aldameneko etxe bi (11. eta 13. zenbakixak) eraisteko biharrak hasitta egon arren, istripua gertatu arte ez eguan aurreikusitta 15. zenbakixa botatzia, baiña etxia egoera txarrian eguala bazakixen. Hain zuzen be, bertan bizi ziranak urriaren hasieran jakiñarazi zetsen Udalari hormetan arrakalak agertu zirala eta, harrezkero, pitzadura

gehixago azaltzen ete ziran kontrolatzen ziharduen teknikaixak. Martitzenian egoeriak txarrera egin ebala ikusitta, badaezpada etxetik etara zittuen bizilagunak eta, horrerik eskerrak, eguaztenian teillatua hondoratu eta horma zati bat jausi zanian etxia hutsik eguan eta ez zan inor zauritu. Halanda be, eraikiña oso kaltetuta daguala baieztatu eta gero, hori be eraustia erabagi dau Udalak. Bixen bittartian, 17. zenbakixan bizi diranak Eibar eta Ermuko hoteletara eruan dittue, aldameneko etxia bota eta eurenera bueltatzeko arriskurik ez daguala ziurtatzeko moduan egon arte.

autuan

1944-AN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA

Azaruaren 23an Arkupe tabernan 13:00ian alkartuko dira urte horretan jaixotakuak. Zapixak banatu eta piskolabixa amaittu eta gero, 14:00etan egingo dabe talde argazkixa Untzagan. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da, 15:00etan. Juan nahi dabenak 65 euro sartu biharko dittue Laboral Kutxako kontu korrante honetan, izen-abizenak argi azalduta: 3035 0078 81 0781052201.

MARTXA SOLIDARIORAKO TXARTELAK


Marcan Huella txakurren protektorakuak, euren jardueretarako dirua batzeko asmuarekin martxa bat antolatuta dabe azaruaren 24rako. Usartzan alkartuko dira, 10:00etan, eta Kalamuaraiño jua eta gero, atzera be Usartzara bueltia egingo dabe, hantxe pintxo batzuk jan eta zeozer edateko. Parte hartu nahi dabenendako tiketak ipiñi dittue salgai, 5 eurotan (pintxua eta edarixa barne) eta erosteko +Que Wapos eta Burbujas y Mas Eibarko dendetara jo leike edo, bestela, Ermuko Maskoterosera.



HONDAKINAK PREBENITZEKO EUROPAKO ASTEA

HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEKO ZENBAIT IDEA

- | | | |
|--------------------------|---------------------------------|------------------------------------|
| Poltsa berrerabilgarriak | Ontziratu gabe erosi | Soilik beharrezkoa dena inprimatu |
| Stop publizitateari | Produktu ekologikoak kontsumitu | Berriz kargatzeko pilak |
| Ez xahutu! | Iturriko ura edan | Oparitu erabiltzen ez duzun arropa |
| Konpondu! | Parte hartu konpostajeon | Zabaldu ezazu |



KONPROMETITU GAITEZEN EIBARREKIN **Birzikla dezagun**

Azaroaren 22an, Untzaga plazan

10:00/14:00 eta 16:30/19:30 Eibarren sortzen ditugun hondakinei eta birziklapenari buruzko informazio puntua


16:30/18:30 Haurrentzako eskulan tailerrak: diru-zorroak eta musika tresnak material birziklatuekin

18:30/19:30 Hondakinen karakterizazio publikoa. Ikusi nola birziklatzen dugun Eibarren eta goazen hobeto egitera!

Etorri eta jaso olio birziklatzeko inbutu bat!

– **Eibarko birziklatze portzentajea** handituz joan da, 2007an %18,2 izatetik **2018an %56,2** izatera

– **2019ko irailean** metatutako birziklatze portzentajea **%57,3** izan da



**IDURRE
 IRIONDO**

Elikagaiak batzeko boluntarioak bihar dittue

Gipuzkoako elikagaien bankuak antolatzen daben janari-bilketa berezixa azaruaren 22xan eta 23an egingo da eta horretan laguntzeko prest dagozen boluntarioen premiñia daguala emon dabe aditzera kanpaiñako arduradunak. Horregaittik, baten bat janarixa biltzen lagundu nahi badau, 658 756 079 telefono zenbakira deitzeko eskatu dabe, Elena Kortabariarengaittik galdetu eta izena emoteko.

Bestalde, aurreko urtietan bezala, aurten be Elikagaien Bankuari laguntzeko konpromisua hartu dabe lkasten alkartekuak. Aurten Eroski Hipermarketuan egongo dirala aurreratua dabe, azaruaren 22xan, 09:00etatik 21:00xetara bittartian. Laguntzeko prest dagozeneri lkastenekin kontaktuan ipintzeko eskatu dabe, 626 77 36 76 telefono zenbakira deittuta edo ikasteneibar@yahoo.es helbidera idatzizta, boluntario-taldiak antolatu bihar dittue eta.



Eskualdeko pentsionistak manifestaziñua deittu dabe bixarko

Debabarreneko pentsionista plataformak deittuta, eskualde maillako manifestaziñua egingo da bixar eguardixan, 12:00xetan Untzagatik hasitta, pensiño publiko eta duiñak eskatzeko 2018ko urtarrillaren 15ian hasi ziran asteroko mobilizaziñuetako eskaera berak dira oinguk be: 2011. eta 2013. urtietako legiak bertan behera lagatzia, 1.080 euroko gitxieneko pensiñua, 1.200 euroko gitxieneko soldatia eta andra eta gizonen artian pensiñuetan dagozen aldiak desagertzia.



45 urte dittuenen jai arrakastatsua

Aurreko zapatuan alkartu ziran 1974. urtian jaixotako eibartarrak eta, holakuetan normala dan moduan, primerako eguna pasau eben. 90 bat lagun batu ziran Unzaga Plaza hotelian bazkaltzeko asmuarekin eta eurretako askok goizaldera arte luzatu eben parranda. Antolatzailliak diñenez, hurrengua noiz egingo daben pentsatzen hasitta dagoz batzuk.



GAIZKA VITORIA ARANO

(3. urteurrena: 2016-XI-13)



**URAK DAKARRENA
 URAK DAROA / ZUK EMANDAKOA
 GUREKIN GERATZEN DA —ETXEKOAK—**



Hauteskundietako Eibarko datuak eta baloraziñua PDF formatuan eskuragarri

PSE-EEK baiño 250 botu gehixagorekin, Eibarren EAJ-PNV alderdixa izan zan domekako hauteskundietako irabazlia. Hortaz, Espaiñiako Kongresurako eta Senadurako hauteskundien “errepikapenak” sozialisteri ohiko nagusitasuna galtzia eragin detse. Oin dala zazpi hillebete egindako hauteskundiekin konparauta jeltzaliak orduko emaitzeri eutsi detse (4.173tik 4.180ra pasauta), sozialistak 376 galdu dittuen bittartian (apirilkeko 4.306tik oingo 3.930era pasauta). Hirugarren eta laugarren postuetan be kanbiuak egon dira. Izan be, oinguan EH Bilduk Elkarrekin Podemosekueri aurria hartu detsa: abertzaliak apirillian baiño 100 botu gehixago hartu dittue (2.689tik

2.790ra) eta Podemosekuak urruti geratu dira, Bildu baiño ixa 580 botu gitxiagorekin (apirillian 2.862 lortu zittuen eta oin 650 gitxiago eskuratu dittue, 2.213rekin geratuta). PP-k bosgarren jarraitzen dau eta apirilletik hona 64 botu irabazi dittu, 836tik 900era pasauta. Ciudadanosek gurian be botu asko galdu dittu eta aurrekuetan 317 lortu arren, oinguan bakarrik 97 jaso dittu. Eta VOX-ek aurrekuen antzerako emaitza euki dau, 210etik 204ra pasauta. Oinguan ez dogu hauteskundien inguruko paperezko alerik kaleratu, baiña emaitzak auzorik auzo eta grafikuk PDF formatuan eskuratzeko moduan topauko dozue gure web orrixan (etakitto.eus/mediateka/hauteskunde-aleak).




EAJ-PNV garaile Eibarren, PSE-EEK baino 250 boto gehixagorekin

ZENTSA	BOTO-EMALEAK	PARTEHARTZEA	ABSTENTZIOA
21.147	14.898	%69,81	%30,99

PSE-EEK Eibarren baten baten berri gehixago nagusitasuna galtzia du Kongresurako eta Senadurako hauteskundietako irabazlia. Hortaz, Espaiñiako Kongresurako eta Senadurako hauteskundien “errepikapenak” sozialisteri ohiko nagusitasuna galtzia eragin detse. Oin dala zazpi hillebete egindako hauteskundiekin konparauta jeltzaliak orduko emaitzeri eutsi detse (4.173tik 4.180ra pasauta), sozialistak 376 galdu dittuen bittartian (apirilkeko 4.306tik oingo 3.930era pasauta). Hirugarren eta laugarren postuetan be kanbiuak egon dira. Izan be, oinguan EH Bilduk Elkarrekin Podemosekueri aurria hartu detsa: abertzaliak apirillian baiño 100 botu gehixago hartu dittue (2.689tik 2.790ra) eta Podemosekuak urruti geratu dira, Bildu baiño ixa 580 botu gitxiagorekin (apirillian 2.862 lortu zittuen eta oin 650 gitxiago eskuratu dittue, 2.213rekin geratuta). PP-k bosgarren jarraitzen dau eta apirilletik hona 64 botu irabazi dittu, 836tik 900era pasauta. Ciudadanosek gurian be botu asko galdu dittu eta aurrekuetan 317 lortu arren, oinguan bakarrik 97 jaso dittu. Eta VOX-ek aurrekuen antzerako emaitza euki dau, 210etik 204ra pasauta. Oinguan ez dogu hauteskundien inguruko paperezko alerik kaleratu, baiña emaitzak auzorik auzo eta grafikuk PDF formatuan eskuratzeko moduan topauko dozue gure web orrixan (etakitto.eus/mediateka/hauteskunde-aleak).

Estatuko emaitzak: Gaurko hauteskundeetan (2019ko azaroaren 10) Eibarren EAJ-PNV garaile izan zan, PSE-EEK baino 250 boto gehixago irabazi dituen bitartean. Oin dala zazpi hillebete egindako hauteskundiekin konparauta jeltzaliak orduko emaitzeri eutsi detse (4.173tik 4.180ra pasauta), sozialistak 376 galdu dittuen bittartian (apirilkeko 4.306tik oingo 3.930era pasauta). Hirugarren eta laugarren postuetan be kanbiuak egon dira. Izan be, oinguan EH Bilduk Elkarrekin Podemosekueri aurria hartu detsa: abertzaliak apirillian baiño 100 botu gehixago hartu dittue (2.689tik 2.790ra) eta Podemosekuak urruti geratu dira, Bildu baiño ixa 580 botu gitxiagorekin (apirillian 2.862 lortu zittuen eta oin 650 gitxiago eskuratu dittue, 2.213rekin geratuta). PP-k bosgarren jarraitzen dau eta apirilletik hona 64 botu irabazi dittu, 836tik 900era pasauta. Ciudadanosek gurian be botu asko galdu dittu eta aurrekuetan 317 lortu arren, oinguan bakarrik 97 jaso dittu. Eta VOX-ek aurrekuen antzerako emaitza euki dau, 210etik 204ra pasauta. Oinguan ez dogu hauteskundien inguruko paperezko alerik kaleratu, baiña emaitzak auzorik auzo eta grafikuk PDF formatuan eskuratzeko moduan topauko dozue gure web orrixan (etakitto.eus/mediateka/hauteskunde-aleak).

Katalunian emaitzak: Katalunian Euzkara Republikeren irabazi dituen bitartean, 13 diputatu irabazi dituzte. Euzkara Republikeren irabazi dituen bitartean, 13 diputatu irabazi dituzte. Euzkara Republikeren irabazi dituen bitartean, 13 diputatu irabazi dituzte. Euzkara Republikeren irabazi dituen bitartean, 13 diputatu irabazi dituzte.



Kaleratutako bihargiña lanera bueltatzia eskatzeko protesta

Bilbeando enpresakuak (lehen Frutas Pilar izandakua) Urkizun dakan fruterixa parian alkarrataratzia egin eben eguaztengan, LAB sindikatuak deittuta, bertako bihargin bat “bere lan eskubidiak aldarrikatziagaitik” kaleratu dabela eta, horren kontra protesta egin eta, atzera be biharrera bueltatzia exijitzeko. Sindikatuaren arabera, 17 urtian biharrin jardun eta gero, sekula kejarik euki ez daben bihargiña kaleratzeko arrazoia “hauteskunde sindikalak egitteko aukeria beste bihargiñekin komentatzia” izan da.

Dendarixen kanpaina barrixa martxan



Eibarko Dendarien Elkartek kanpaina barrixa ipiñi dau martxan, “bezerueri eskerrak emoteko”. Horretarako, abenduaren 8ra arte alkarteko dendetan zeezer erosi eta Eibar txartelarekin pagatzen dabenen artian, 40 euroko 75 erosketa-txartel oparituko dittue. Txartelak banatzeko zozketia egingo dabe, horretarako bost sektore berezitta.

Gaztetxiak Okupaziño Jardunaldixak hartuko dittu asteburuan

Gaur eta bixar egingo dittue Okupaziño Jardunaldixak Gaztetxian eta, antolatu daben programaziñua taillarrak, kontzertuak, mahai-ingurua eta beste jarduera batzuk osatzen dabe. Gaur ekingo detse jardunaldixeri, 17:00etan hasiko diran taillerrekin. Gabian, barriz, DJ Joxefinak saia eskinduko dau, 22:00etatik aurrera. Eta bixar 12:00xetan hasiko da okupaziñuaren inguruan berba egitteko mahai-ingurua. Horren ostian, 15:00etan bazkarixa egingo dabe eta, programia biribiltzeko, 21:30xetatik aurrera kontzertua emongo dabe Txabela Bragas, Jaleo, Sofokaos, Irauten eta Yare Collective taldiak. Antolatutakueri esker batzen daben dirua Asola Igartzako basarrixa okupatziak sortu dittuan gastu judizialerako erabiliko dabe.

MIREN ETXANIZ ELORZA

(I. URTEURRENA: 1918-XI-18)

“ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN”

ETXEOAK

Bere aldeko urteurren **MEZA** egingo da **azaroaren 17an (domeka), 12:00etan** hasita, SAN ANDRES PARROKIAN.







Oier Araolaza

Aurreko zapatuan ehundik gora lagun batu ziran jardunaldi osorako Sosola basarrikuak prestatutako egitarauarekin gozatzeko. "Udazkeneko uzta" izenarekin bataiatutako eskindu zetsen: bisita gidatua, kontzertua eta bazkarixa. EHKolektiboak alkartiak martxuan/apirillian erabagi eban euren partaidia dan Sosolari udazkeneko saia antolatzeko aukeria emotia, Pedro Sanchezek barriro be hauteskundietara deitu baiño hainbat hillabete lehenago. Kasualidadez, hauteskunde bezperako erreflexiño egunian jausi zan egun berezi hori: erreflexiño gitxi, baiña aukera bikaiña izan zebe bertara bildutakuak egun apartarekin disfrutatzeko. Bixamoneko hauteskandia guztiz ahaztuta, Amañatik gorako basarrihan egunpasa ezin aproposaguaz disfrutatu zebe heldu, gazte zein ume. Danak alkarrekin, kanpokua ahaztuta eta euskara hutsian. Ez da erraza izaten egun guztia euskaraz pasatzia. Ba hori be lortu zebe ekitaldixak, ixa-ixa han giñan guztiak basarritar bihurtzeraiño.

Erreflexiñorako egun zoragarrixa eskindu zeskuena Sosola basarrihan

Badira zortzi bat urte EHKolektiboak alkartia lehen urratsak emoten hasi zala, ekologixaren bidia hartuz basarritar txikixak egitten eben lana kaleratu eta indartzeko asmuarekin. Mailla nazionalekua da alkartia, "ezkutuan izan biharrian, egin dako lan horren `ospea` zabaldu eta, batez be, bereizteko ahalegiñian" diharduena. Mailla industrialian lan egitten dabenekiko menpekotasunik gabe, "baiña bestelako izaeria erakutsiz: inguruarekiko errespetua eta zaintzarekin batera, nekazaritzatik bizitzia badaguala bultzateko asmuarekin". Eta, horretarako, urtaro bakotxian antolatzen daben ekitaldi berezixetan kultur ikutua be emoten ahalegintzen dira.

Behin eguna pasatuta, lasaitu ederra hartu dabe Sosolako Enrike Gisasolak eta Aizpea Izagirrek: "Sentsaziño oso onarekin geratu gara azkenian, eguna hunkiga-

rrixa be gertatu zalako hainbat momentutan. Ez genduan halako babesik espe-ro, askok lagundu deskue eta horrerri esker aurrera egittia lortu dogu. Egunaren antolaketia ez da samurra izan, baiña jendiaren inplikaziñua eta parte-hartzia eskertzia besterik ez jaku geratzen".

Azken egunotako eguraldixak be ez zebe, erraztasunik eskindu, "eta hasierako planak aldatu bihar izan genduan. Azkenian, Ruperren kontzertua eta bazkarixa toki berrian egin bihar izan genduan". Kontuan izan bihar da, gaiñera, euren lantokixa dala au-



Aizpea Izagirre bere lanaren nondik-norakuak azaltzen.

Oier

rreko zapatuko "aretua". Haizia nondik sartuko zan aurrekusi bihar izan zebe, horren arabera fardelak kokatzeko, bestelako baliabidiak be honuntza eta haruntza mugitzeko. "Gure ofiziuak eragindako asuntuak dira, ez gagoz halakuetara ohittuta", diño En-



Sosolakuak euren ametsa bete zeben Ruper etxera ekarrirta. Kikuk eta Maialenek be lagundu zetzen oñatiarrari emonaldixan. **Ainhoa Larrañaga**

rikek. Guztira, 5-6 hillabeteko prestakizunak izan dira, "apurka-apurka egindakua; azken hillabetia intentsuagua izan da".

Esperientziak, dana dala, zeozertarako balio izan detse: "Inguruko jendiak zelan erantzun deskun ikusteko. Deialdixa bota eta nahi beste lagun genkagun eskua botatzeko prest. Horrez gaiñera, Debemeneko Agurtzane Etxaniz, kotxiak lagatzeko munitzipalen aldetik izandako laguntasuna... Eta, berari ez jako gustatuko esatia, baiña Ruper Ordorikaren jarrera bera be ikustekua izan da. Maialen Araolazak eta Kikuk eskindutako guztiarekin batera".

Jasotako laguntasunari eskertuta

Ez dira aldapa errazak, Amañatik gora, Sosolaraiño eramaten gaittuenak. Baiña han goixan arnasa lasai hartu leike, eta baita gauzak beste era batera ikusi be. Prestatutako egitarauan tartia izan zan, hasteko, bertako gaztaia eta ogixa zelan produzitzen daben jakittek, Aizpeak eta Enrikek gustora asko emon zittuen argibidieri esker. Urtian milla kilo gaztai saltzen dabe, gitxi gorabehera, eta Enrikek daka horren arduria. Hori bai, ez dogu saltzaille arrunta: "Ezin dot ulertu gaztai zati bat probatzera emon eta gero beste bat saltzia; gaztai guztiak desbardiñak dira-eta". Aizpea eta Esti ahizia arduratzen dira ogixa egittiaz eta astian lau egun izaten dittue gogorrak, "eguzten gabian 03:00ak bueltan jaikitza" eskatzen dabenak. Gaur egun artal-

dia 130 ardikua da eta hiru laguneko enpresia osatzen dabe. Lotura berezixa dake euren "negoziarekin", mantenimendu-lanak eta ikastaruak horretara bideratuta. Baiña aske sentitzen dira "arlu guztietan, gustatzen jakuna egitten dogulako. Badakagu sentsibildadia ingurugirurekin, hartuemon zuzena elikagaiekin. Gustuko tokixan aldaparik ez, esaten dana". Halanda be, onartzen dabe leikela "etxian preso" sentitzia, militante ikutua badakala eurena, "medio urbanuan kontsumo aldetik "riritotzat" hartzen gaittuelako".

Amaieran euren produktuak saltzeko aukeria be euki eben, "nahiz eta hori ez izan gure helburua". Normalian azoketan-eta saltzen dabe gehixen: "Sanandresetan, esaterako. Kontsumo-taldia be badakagu denda baten eta ondo doiaz gauzak: ogixa be askosaltzen dogu".

Ondo gordetzeko kontzertua

Ruper Ordorikak "bermut orduko saia" eskindu eban bazkal aurretik. Igarri jakon gustura zeguala, bere onena emoteko prest, eta dozenatik gora abesti eskindu zittuan, azkenekua Maialen Araolazak eta Quico Puges 'Kiku'-k lagunduta. Jendia harrituta geratu zan musikia zein ondo entzuten zan konturatuzian; arlu horretan lan bikaiña egin zeban Napoka Irian Miren Narbaizarekin ibillittakoko Ander Mujika elgoibartarrak. Abeslarixak trikitalarixen moduan agurtu zeban auditorioa: "Deittu oster a be,

etoriko naiz-eta". Egixa esan, ikusitta Enrikek eta Aizpeak, bixak, zelan aurkeztu eben ("eziñezkua errealdade bihurtuta"), ezin zeikian txarto sentitu: eurak hunkittuta eta Ruper furgonetan eurekin egunero eramaten dabela jakinda. Ondoren, beste guztio-kin batera bazkaltzera geratu zan.

Kalabaza-kremia lehelengo, bildotsa edo menestria jarraixan eta sagar-tartia amaitzeko, hórrek osatu zeben inguruko produktuekin osatutako menua: "Bildotsak guriak ziran, berduriak guriak, Busturiakuak eta Elosukoak, sagardaua Errezilgoa, ardo ekologikua Nafarrokoa eta olixua Sevillako Ecijakua". Jendia be toki askotakua: gehixenak eibartarrak izan baziran be, baziran Elgoibakuak, Durangaldekuak, Enkarerrietakuak -bertakua zan egun osua marrazten pasatu zeban dibujantia- eta, zelan ez, Lasarte ingurukuak (handik etorri zan gurera Aizpea).

Eta ez dittue alkaterekuak eskindutako laguntasuna ahaztu nahi: "Josebe Blanco eta talde eragillia aldamenian izan dogu beti". Urtaro baktotxian Euskal Herriko herrialde baten antolatzen dabe sasoi horretako "Uzta" eta Gipuzkoako oingo hau euri egokittu. Prest, baiña, barriro hartzeko halako beste bat? "Oin ezetz esango neskizu. Urtebete barru igual bai, herriko Serrano, Miren, Mursegorekin... zergatik ez? Baiña ez gagoz ohittuta, beti zeozer txarto urtengo daben beldurrez". Lasai egon daitezke, juan zan egunekua ez zebalako iñoren kejarik izan. Justu-justu kontrakua.





PAULA IGLESIAS ("Fabricando mujeres" dokumentalaren zuzendaria):

"Kontsumo-ohiturek emakumeon osasun fisiko eta mentalean eragiten digute"

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna egingo da azaroaren 25ean eta, horren harira, Andretxeak eta Emakumeen Mahaiaik hainbat ekintza antolatu ditu. Adibidez, hilaren 22an, barixakuan, 'Fabricamos mujeres' izenburuko dokumentala emango dute 18:00etan Portalean. Al Borde Filmsek SETEMen laguntzarekin egindako lana da, Ana Serna eta Paula Iglesiasek zuzenduta.

- Modu interaktiboan planteatu duzue 'Fabricando mujeres' dokumentala. Nola zehazki?

Dokumentalak bi zati ditu. Batetik, alde tradizionalena edo dokumental lineala. Eta bestetik, dokumental interaktiboa. Bertan, dokumentala zatitu egiten dugu eta ikusleak nahi duen moduan nabigatu dezake istorioko gai batetik bestera. Interakzio hau errekurtso bezala erabiltzea da gure ideia. Maila narratiboan istorio bat sortu dugu eta Maite izeneko 80 urteko emakume bat da protagonista. Berak 'Emakumeen fabrikako' hondakinak jaso-

tzen ditu, gaur egun indarrean dagoen sistema ekonomiko kapitalistarekin konparaketa eginez, eta emakumeen estereotipoen barruan sartzen ez diren gauzak berrirabiltzen eta berrasmatzen ditu, beste esanahi bat emanez. Alternatibean laborategi bat da. Bi mundu horien artean eratzten da diskurtsua. Batetik, 'Emakumeen fabrika' dago, emakumeen aurka erasokorrak diren balioak eta rola sortzen dituen sistemari lotutako gauzak batzen dituenena. Eta bestetik, Maiteren taillarra, positiboa dena eta alternatiba eta soluzioak proposatzen dituenena.

- Hainbat elkarrizketa jaso dituzue dokumentalean. Nolako ekarpena egin du-te elkarrizketatuek?

SETEM Hego Haizea elkarteak egindako 'Biolentzia kontsumitzen dugu' ikerketatik abiatu zen dokumentala eta hiru ardatzetan banatzen da: etxea, estetika eta mugikortasuna. Dokumentalean Maitek egiten du ikerketa SETEMekin batera eta berak egiten ditu elkarrizketak, aipatutako hiru ardatzak kontuan hartuta. Horrekin, hiru arlo hauen barruan egiten den kontsumoaren bitartez sortzen diren biolentzia matxistak bistaratu eta aukera berriak proposatu nahi genituen. June Fernandez Pikara Magazinetako kazetariak eta Silvia Federici idazleak euren esperientzia eta teorioren berri ematen dute, eta Silvia Aguerok ijitoen feminismoari buruz jardun du, besteak beste.

- SETEMen ikerketaren arabera biolentzia kontsumitzen dugu. Zein biolentzia mota?

Lehen aipatutako hiru ardatzen barruan gertatzen direnak. Etxebizitza barruan gertatzen den biolentzia, adibidez. Hau da, garbiketa-produktuen eta elikaduraren ondorio den biolentzia. Normalean etxeko-lanak emakumeok egiten ditugunez, garbiketa-produktuen toxikoek emakumeoi eragiten digu gehienbat. Sistema kapitalista hetero-patriarkalean ezarrita dauden rolengatik emakumeok jasaten ditugun biolentziak dira. Beste adibide bat jartzearren, mugikortasunari dagokionez, eskolan egiten den espazio publikoaren erabilerari buruz egiten dugu berba. Adibidez, jolastokiko erdigunea foballak hartzen badu, erdigunetik aldentzea proposatzen dugu eta bere orde zolas kolaboratiboagoak sustatu.

- SETEMen ikerketan jasotzen diren biolentziak nolako eragina dute emakumeen bizimoduan?

Egitura-biolentziatik, kultura-biolentziatik eta biolentzia-sinbolikotik, biolentzia zuzenataraino. Adibidez, kontsumo-ohiturek emakumeon osasun fisiko eta mentalean eragiten digute, eta gizarteak biolentziarekin tratatzen ditu emakume hauek.

- 'Erreklamazio gunea' duzue fabricandomujeres.org webgunean. Zer jasotzen duzue bertan?

Atal honen bitartez jendearen parte-hartzea sustatu nahi dugu eta, kontsumoaren bitartez sortzen diren biolentziak identifikatzen dituztenean, egoera horiek salatu ditzatela. Bestetik, alternatibak batzen dituen gune bat ere badugu dokumental interaktiboan, hau da, webgunean. Horrela, modu

"Kontsumoaren bitartez sortzen diren biolentzia matxistak bistaratu eta aukera berriak proposatu nahi genituen"

kolektiboan sortzen dugu kontakizuna. Creative Commons lizentziarekin egiten dugu lan eta sortu ditugun erramintak denon eskura utzi ditugu nahi duenak erabiltzeko (hitzaldietan, formakuntza-saioetan...).

- Biolentzia sortzen duen kontsumo honenkin amaitu ahal da sistema kapitalista indarrean badago?

Kolpe batez, ez. Hala ere, bide bat jarraitu dezakegu emakumeontzat oldarkorrek ez diren kontsumo dinamikak sortzeko. Guretzat kaltegarriak diren ohiturak zerbait positiboan bihurtu ahal ditugu, baina horretarako, kontsumitzen dugunaz kontzientziatu behar dugu eta kontsumo horrek kalte nola egiten digun jabetu.

- Hori lortzeko bidean gaude?

Bide honetan lan egiten duten ekimen asko dago. Beraz, eurekin bat egin behar genuke biolentzia horiekin amaitzeko. Horregatik da garrantzitsua alternatibak ikusgarri jartzea, aukerak daudelako. Batzuetan gauza errezetan eta azkarretan jausten gara, eta normala da, hainbat erantzukizun ditugulako gure bizitzan (lanaldi hirukoitzak, emakumeon kasuan). Pentsatzen dugun guztiarekin koherenteak izatea zaila da, baina gero eta ekimen gehiago dago eta eurekin bat egin dezakegu, eurek egiten duten lana aprobetxatuz. Adibidez, dokumentalean maskulinitate berrien

ikuspegia irudikatu nahi izan dugu. Emakumeok bide bat hasi dugu eta gauzak aldatzen hasi gara, baina feminitateari eta emakume izateari buelta eman diogun moduan, gizonezko izateari buelta eman behar zaio baita ere, maskulinitate toxikoenetatik aldentuz. Esperientzia batzuk beste batzuk baino arrakastatsuagoak dira, baina antzeko bidean doaz eta nondik jo ahal dugun erakusteko balio digute.

- Dokumentala Portalean ikusteko aukera izango dugu hilaren 22 eta solasaldia egingo da ondoren. Zuzendariak bertan egongo zarete?

Uste dut ezingo garela egon, bi lankide bajaran daudelako eta lanez lepo gaudelako. Eibarren egotea gustatuko litzaiguke, baina zaila izango da.

- Dokumentala han eta hemen eskaini duzue. Nola erantzuna jaso du ikusleen aldetik?

Zinebin aurkeztu genuen eta Euskal Herriko eta atzerriko hainbat tokitan eskaini dugu, eta oso erantzun ona jaso du. Dokumentalak kontakizun zabala egiten du eta, hainbat gauza kanpoan geratzen diren arren, sortzen duen eztabaida interesgarria da. Pertsona bakoitza aurkitzen den tokiaren arabera, ekimen berriak ezagutzeko balio dezake dokumentalak (feminismo lodiak eta errealitate arrazializatuak, adibidez). Pozik gaude dokumentalak izan duen erantzunarekin, eta badirudi bide berri bat hasiko duela eta telebista publikoan ikusi ahal izango dugula laster. Horrela, beste publiko batengana iritsi ahal izango gara.

7 URTE
GARANTIA
KIA

10 EGUN KIA
ESKAINZA EZIN HOBEAK azaroaren 14tik 25era

Hibridoak barne.

KIA
NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1. Eibar
Tel.: 943 70 70 33
www.naiacar.com

Kontsultatu betebeharrak: www.kia.com



Datorren azaroaren 16ko Psikologo Euskaldunen III. Topaketan Xabier Isasi Balanzategi UPV-EHUko irakasle eta UEUkideak egingo du sarrera hitzaldia. Euskara eta psikologoena lana izango ditu mintzagai.

XABIER ISASI (irakaslea):

“Pertsonen ongizatea dago auzitan; euskaldunena, kasu honetan”

- Euskara eta psikologoena naz ari garenean, zein da egoera?

Psikologian lizentziatu berria nintzela Bizkaiko eskualde euskaldunean hasi nintzen lanean eskola psikologo gisa. XX. mendeko 90ko hamarkadaren amaieran psikologian euskaraz jarduteko ez zegoen ez testik, ez eskulibururik, ez diagnostikoetarako baliabiderik, ez ezer. Hori horrela, udalerrri oso euskalduneko gurasoak etorri zitzaizkidan laguntza eske. Aita-ama euskaldunei alaba gorra jaio zitzairen. Oso urduri azaldu zidaten psikologo batek esan ziela alabari erdaraz hitz egin beharko ziotela eta alabak hizkuntzarik ikastekotan, gaztelaniaz ikasi behar zuela. Psikologo hark esan zien *“euskarak ez zuela balio ume gorrei hizkuntza irakasteko”* eta, halabeharrez, haurraren hizkuntza gaztelania izan behar zela. Izugarria. Orduz geroztik ez dugu gehiegi aurreratu. Oraindik orain, ikusmen edo entzumen gabeziak dauzkaten euskaldunek zailtasunak dauzkate euren hizkuntzan artatuak izateko. Kontuan

hartu psikologia eta pedagogia eremuetan erabiltzen diren diagnosi lanabesetan, testak eta abar, %2a inguru besterik ez dagoela euskarara egokiturik.

- Aipatutako euskarazko diagnostiko-tresnez gain, zein hutsune daude gaur egun?

Psikologoena prestakuntza sakon landu behar dugu. Ikusi izan ditut psikologo erdaldunak haur euskalduneri elkarrizketak egiten itzultzailearen laguntzaz. Ezagutu nuen kasu bat sei urteko ume batena, hitz egiteko ezintasuna zuena jaiotzetiko miopatiaren eraginez. Psikologoak (erdalduna) aztertu zuen eta autista zela diagnostikatu zuen, komunikatzeko arazoak antzeman zizkiolako! Gurasoak, baserritarak, larrituta zeuden haien semetxoa autistentzako gela itxian zeukatela-eta. Kasua berriaz aztertzean, autisten gela berezian bisita egin nion umeari. Han zegoen, lurrean eseri-

ta, adurra zeriola, amantala blai eginda; altzaririk gabeko eta leihorik gabeko gela koltxatu batean, bera baino dezente handiagoa zen bete haur batekin. Zentroan zaindari eta hezitzaile guztiak erdaldunak ziren. Umeari, hurbildu eta euskaraz hitz egin nionean, irribarrez, aurpegia argitu zitzaion. Autista? Hitz egiteko arazo fisikoak zituen euskalduna, horixe zen. Erdaldunetz inguratua, inkomunikazio egoerara kondenatua, psikologo ezjakinaren erruz. Seguru nago oraindik horrelako ankerkeriak gertatzen direla psikologo euskaldunen faltagatik. Hutsuneak? Ugari.

- Zer nabarmendu nahiko zenuke?

Psikologiaren deontologiaren unibertsiteko lankide batekin izan nuen eztabaida. Eztabaidatzen ari ginen gaitasun psikologikoei buruzko testak euskarara egokitu behar ziren ala ez. Nik baietz eta berak, jatorrizko euskalduna izanda ere, ezetz; euskaldun guztiok edo ia

guztiok erdaraz ere badakigula. Esaten zidan kontua politizatzen ari nintzela; ez nuela nahastu behar euskararen berreskurapena eta psikologia. Muturra behar zuen! Nik esaten nion inongo psikologok ezin dezakeela onartu edozein pertsonaren ongizate psikologikoa kaltetzea hizkuntza, ideologia edo bestelako sineskeriengatik; eta euskalduneri zor zitzaizela beste edozein pertsoneri ematen zaien arreta bera bere ongizaterako, baita psikologian ere. Zer nabarmendu? Gure auzi hau psikologia izaerakoa dela, bilatu behar dugula pertsoneri zerbitzurik egokiena emateko modua. Hori, euskaldunen kasuan, jakina, euskaraz egin behar da. Psikologiaren beharra nabarmenduko nuke.

- Zergatik da garrantzitsua psikologo euskaldunen topaketa?

Nik uste esana dagoela. Psikologok kontziente izan behar dugu, zerbitzu egokia emateko, euskaraz dauzkagun gabeziak gainditu behar ditugula. Oso garrantzitsuak dira. Pertsonen ongizatea dago auzitan; euskaldunena, kasu honetan.

“Psikologok ere, zerbitzu egokia emateko, euskaraz dauzkagun gabeziak gainditu behar ditugu”

Olatz Beobide, Amaia Lizarralde eta Belen Cruz aktoreak egongo dira Portaleko areto nagusian datorren eguaztenean (azaroaren 20an). *Sarean kateatuta* dabilta hiru neska hauek. *Nomofobikek* ez dakite mugikorrik gabe bizitzen. Selfiak atera eta atera ibiltzen dira egun osoan, sare sozialetan 'atsegin dut' sakatzen eta mezuak bertxiokatzen. Umore handiz hartzen dute euren gaixotasuna. Nomofobia aitzakitza hartuta, hiru emakumeek ikusleekin batera terapia bati egingo diote aurre. Ekitaldia ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu du. 19:00etan hasiko da eta sarrera irekia izango da.



OLATZ BEOBIDE ("Sarean Kateatuak" antzezlaneko aktorea):

"Umore kodean egoera larri bat islatzen dugu"

- 2016an zuen lana Poltsiko Antzerkia jaialdiaren irabazlea izan zen. Orduetik hona gelditu gabe egon zarete lan honenkin. Nola jai zen proiektua?

Arratsalde batean elkartu ginen, zerbait berria sortzeko asmoz eta elkarrekin lan egiteko gogoari erantzunez. Mugikor eta sare sozialekiko dugun menpekotasunaren gaia atera zen. Hortik dator, hain justu, taldeari jarri genion izena: *Nomofobikak*. Hasieran ikuskizun laburra zen, kafe antzokietan eta horrelakoetan egiteko pentsatuta zegoen, eta gero luzatzea eskatu ziguten. Umorea eta kritika dago eta jendeak oso ondo pasatzen du. 3 urte daromatragu alde batetik bestera lanarekin. Eskoletan, kalean, eszenatokietan edo edozein lekutan egiteko aproposa da.

- Zer da nomofobia?

Mobilik gabe geratzeko beldurrari deitzen zaio nomofobia. Mendekotasun gisa katalogatuta dago eta badago jadanik tratamendua jasotzen ari den jendea. Askorentzako arazo serioa bihurtu da. Hemen ez dut uste hainbesteko denik, baina Asia aldean jendea ospitaletan sartzen dute. Arazo larriena da engantxe hori joko adikzioarekin lotzen denean. Mobila edozein lekutan eta edozein momentutan gainean duzuen erraminta da. Askotan pertsona batekin egoteko desiatzen gaude, eta aurrean daukagunean ezin dugu mobila askatu.

- Gizartean hedatua dagoen gaitza da, baina umoreaz baliatu zarete eta ikusleek barre egiteko eta ondo pasatzeko aukera daukate zeuekin.

Hori da, umorearen bitartez kasu ezberdinak ikusteko aukera izango du ikusleak: ofizio ezberdinetako langileek, umeez, nerabeek, adineko emakumeek, batzuetan sketch tankeran eta bestetan bakarrik gisa, euren bizipenak aurkeztuko dizkigute, beti ere umorea lagun, burua astintzeko asmotan. Adin desberdinak nahi genituen atera eta, esate baterako, 3 amona agertuko dira, euren rulo eta guzti, facebookera engantxatuta, eurentzako kuxku-



xeatzeko erraminta balitz bezala. Gaur egun oso komunikatuta gaude, baina hori nahikoa da?

- Zer pentsatu ematen duen antzezlanada, beraz.

Terapia kolektibo gisako bat bideratu nahi dugu. Baina magnifikatuz eta umore kodean, egoera larri bat islatzen saiatuz. Antzerki forma desberdinak erabiltzen ditugu horretarako: inkesta bat eta terapia antzeko bat egiten dugu publikoarekin –menpekotasun horren kontzientzia har dezaten–, monologoak sartzen ditugu... Jendea etortzera animatu nahi dugu. Euskera aldetik, pertsonaia asko daude eta bakoitzak bere erara hitz egiten du, baina oso erraza da ulertzen eta jarraitzen. Euskaltegietan asko egin dugu eta erraz jarraitzen den lana da. Ondo pasatzen du jendeak eta guk ere oso ondo pasatzen dugu!

Nomofobia «Ingeleseko nomobile-phone phobia-ren laburdura da eta kalera mugikor gabe irtetzeko beldur irrazionalari egiten dio erreferentzia. Hau da, kobertura edo bateria falta dugunean, mugikorra etxean ahaztu edota ondo funtzionatzen ez duenean sentitzen dugun antsietatea da nomofobia. Gizartearen gehiengoak sufritzen du gaitz edo patologia hau, eta 18 eta 24 urteko gazteen artean are zabalduago dago».

*Jara Larreategi*

Autismoa

“Hasiera batean familiako kide guztiak garrantzia kentzen zieten azaltzen nituen kezkei eta ez kezkatzeko esaten zidaten, honek lasaituko banindu bezala. Gau luzeak neramatzan lorik egin gabe gauza berdinei etengabe bueltak ematen eta erantzunik ez... “Aitorrek zergatik ez nau begirutzen hitz egiten diodanean?”, “Zergatik ez du erantzuten deitzen diodanean?”, “Zergatik ez du interesik azaltzen parkeko umetxoekiko?”, “Eta pozik dagoenean egiten dituen mugimendu horiek?”... Inguruko gehienek haur bakoitzak bere erritmoa daukala komentatzen zidaten behin eta berriz, denek ezagutzen omen zuten lau urterekin hitz egiten hasi ziren umeak... Nire lehenbiziko umea da baina, hala ere, ni ez nengoen lasai.

*Sendagile, neurologo eta psikologoz betetako bide luzea jarraitu ostean **autismoa** hitza gure bizitzan sartu zen, Hiroshimaren eztanda bezala. Oraindik autismo hitzak hotzikara sorrarazten dit, hizki guztiak ahoskatzeak ezpainetan dardara eragiten dit. Gaur*

Autismoaren aurrean, horretarako gaude espezialistak, guraso horien ibilbidean argitasuna eskaintzeko ahaleginean; eta gurasoak, haurrak, aiton-amonak...

egun ere, Aitorri begirutzen geratzen naiz eta oraindik ezin dut sinistu hau guztia guri gertatzen ari zaigunik... Haurdunaldiko froga guztiak ondo atera ziren, ez nuen alkoholik edan, ez nuen erre... orduan, zergatik guri? Zer egin dugu gaizki?”.

Orain dela hemezortzi urte egin nuen topo autismoarekin eta oraindik horrelako bizipenak entzuten ditut Gautenako (Gipuzkoako Autismo Elkarte) diagnostiko zerbitzuan. Autismoa bezalako diagnostiko batek familia horien bizi proiektua hankaz gora jartzen du eta euren bizimodua erabat aldatu eta birmoldatu behar izaten dute. Dolu-prozesu gogor batean sartzen dira hasieran, erraie-taraino iristen da mina, gogorregia batzuentzat. Bidean erronka berriekin topo egingo dute, errazak ez direnak, espero ez zituztenak eta ustekabeak. Baina horretarako gaude espezialistak, guraso horien ibilbidean argitasuna eskaintzen saiatuko garenak. Eta zuek: gurasoak, haurrak, aiton-amonak, irakasleak...

*marisa cid*

Zertan ari gara jolasten

Berriro hemen Gabonak. Berriro postontzian jostailu-katalogoak. Berriro berdinak. Berriro desberdinak. Katalogoak aztertuta, bi hitz hauek dabilta bueltaka nire buruan: berdinak eta desberdinak. Alde batetik, katalogo berdinak, azken urteetan ohiko den bezala, zoragarriak benetan: couché paperez eginak, koloretsuak eta ehunka jostailu erakutsiz haurrak liluratzeko asmoz. Bestalde, neskak eta mutilak desberdinak, desberdinduta, emakumeok kostata lortu ditugun garaipen guztiei muzin eginez. Laburbilduz, dena berdina desberdintasuna jasaten jarraitzeko.

Denok dakigunez, umeek helduen imintzioa egiten dute jolasten dabiltzanean, baina katalogoak ikusi ondoren publizistegi egiteko galdera batzuk bururatu zaizkit: benetan pentsatzen duzue gaurko gizartea islatuta dagoela zuen katalogoetan?, non daude

Genero-rolak gainditzeko bidean gaude, baina ibilbidea oso luzea izango da; horregatik garrantzitsua da jolas eta jostailuek betetzen duten egitekoa

gaurko emakumeak?, nonbait aurki ditzakegu aitatasuna bizi izaten ari diren mutilak? Eta are gehiago, norbaitek pentsatzen du mutil guztiak ausartak direla eta neskak etxeokonde izan nahi dutela, egunero hogeita lau orduz eta musu-truk lan egin?

Nire ustez, genero-rolak gainditzeko bidean gaude, baina izugarrizko lana eginagatik, oso luzea izango da oraindik ibilbidea; horregatik, guztiz garrantzitsua iruditzen zait jolas eta jostailuek betetzen duten egitekoa. Era berean, publizitateak ez ezik, heziketak eta familiek ere beren hazia erein beharko lukete etorkizuna hobetzeko eta gure umeak helduaroan zoriontsuak izateko.

Aurten berandu samar nabil, baina datorren urtean Olentzerori jostailu-katalogo eguneratuak eskatuko dizkiot.

marisacidgibaja@gmail.com



ZUZENEKO MUSIKAREN MAGIA eibartarrerri "kutsatu" nahixan

Azaruaren 22xa Santa Zezilia, musikuen zaindarixaren eguna da eta, urtero, bere omenez kalejira, kontzertu eta musika emanaldi berezixak antolatzen dittue musikua. Hórretxen artian, baiña, bada eibartar askorendako bereziki kuttuna dan kalejira bat: beti gaberdxian hasten dan Santa Zezilia Serenatia. Gaur zortzi eskinduko dabe Eibarko Musika Bandakuak, Carlos Sanchez Barbak zuzenduta.

Bittor Sarasketa kalia, Beistegi erai-kiñian Udalak dakan lokalian ensaiatzen dabe Eibarko Musika Bandakuak eta hantxe jardun genduan Carlos Sanchez Barba zuzendarixarekin berbetan, egun seiñalaturako ez eze, urte osuan eskintzen dittuen kontzertuetarako zelan preparatzen diran bertatik bertara ikusi eta entzuteko. 43 urterekin, Musikagintzan eta Bandan ibilbide luzia egindakua da gaur egungo zuzendarixa: "Oso gazterik hasi nintzan musikia ikasten eta oin dala 20 urte inguru sartu nintzan Bandan. Zuzendari modura hasi nintzala, barriz, hamar bat urte izango dira". Zihetz esateko, zuzendari kargua 2009ko urriaren 25ian es-

trenau eban, bere aurretik 12 urtian Banda zuzendu eban Jorge Molinari lekukua hartu zetsanian eta, berak be onartzen dabenez, "harrezkero asko aldatu da Bandia, lehenagoko musiko askok laga egin dabe, batzuk jubilau be egin dira eta, egixa esateko, gaur egunian musikia eta gitxienez instrumentu bat joten ikasi daben gaztiak dira ixa danak. Badagoz nagusi-xaguak diran kide batzuk be, baiña neu be ixa 'zaharren' taldian sartzeko moduan nago, pentsau".

Gauzak holan, gaur egun Bandan duguazenen eta oin dala urte batzuk eguazenen perfillak oso diferentia dira, "one-rako zein txarrerako. Izan be, Bandara sartzan jua diranetako askok musikia ikasi daben arren, sarrittan oso gaztiak dira eta, normala danez, ez dabe eukitzen esperientziarik eta, gaiñera, iñun ez dabe erakusten zelan jo bihar dan Banda batian, hori behin hasitta ikasten dan zeozer daret. Bestalde, euretako asko txaranga eta horrelakuetatik datoz eta batzuk, Bandan

**Gaur egun Bandan
duguazenen musiko
gehixenak gaztiak
eta ikasittakuak dira**

ez eze, estilo diferenteko musika egitten daben taldietan dihardue". Edozelan be, batzuk bestiekin ikasten juaten dirala diño: "Lehenago, musiko zaharraguak egon diranian, aillegatzen ziran gaztieri lagundu bihar zetsela suposatzen zan, baiña hori ez zan holan izaten beti. Oingo taldian, barriz, nahiz eta gehixenak gaztiak izan, askoz errezago ibiltzen dira batzuk bestieri laguntzen. Eta batzuetan neri tokatzen jata nun eta zertan dabizen gogoraraztia".

Ixa 50 kideko taldia

Eibarko Musika Bandak 45 kide inguru dakaz ointxe, "Banda baterako musiko kopuru idealetik oso gertu gaiz. Halanda be, ondo legoke klarinete, flauta eta oboe gehixago eukitzia, holan gauza gehixago egin ahal izateko, baiña ezin gara keja, boladaka okerrago be egon gara-eta".

Egunotan buru belarri dihardue Santa Zeziliarako preparatzen, baiña ixa urte osuan eskintzen dittue kontzertuak. Bestiak beste, ixa hamabostian behin jotzen dabe Coliseo antzokian, normalian domeka eguardixetan: "Egixa esateko, horrek lanerako erritmo azkarra izatera derri-gortzen gaitu, kontzertu baktotxerako programa bat preparau bihar izaten dogu, batetik bestera aldatzen juaten garalako. Horregaittik ahalik eta gehixen ensaiatzen

ahalegintzen gara: astian birritan, martitzen eta eguenetan izaten dittugu entseguak, 20:00etatik 21:30xetara eta, aukeria egon ezker, kontzertuaren aurretik be ensaiatzen dogu, jendiaren aurrian jotzen hasi baiño lehen". Coliseoko kontzertuetara juaten dan publikuaren artian jarraitzaille oso fidelak dittue, "normalian 200-250 lagun etortzen dira".

Bestalde, Musika Bandia zein zuzendarixa gaztiak izatiak badaka bere eragiña eskintzen dittuen piezen estiluan: "Bandetan jotzen hasi nintzianian 12 bat urte eukiko nittuan eta orduantxe zarzuelak, oberturak eta montatzeko nahiko gatzak diran bestelako piezak ziran ohikuenak.



Barixakuan 19:00etan hasiko dabe Santa Zezilia kalejira Usartza Txistulari Taldekuak.



Astian bi egunetan izaten dira Bandako musikuen ensaiuak.

Baiña Bandako musikia gaztieri gerturtzia nahi izanez gero, nahittaez aldatu bihar da estilua. Nik horretarako ahalegiña egin dot lehelengotik eta, bestiak beste, musikuendako errezaguak diran piezak, adibidez filmetako soinu bandak aukeraten dittut askotan".

Azken urtiotan eurixa eta hotza euki dabe bidelagun Santa Zezilia Serenatan, baiña horrek ez detse ilusiñua moteltzen: "Argi dago belaunaldi aldaketia egon dala, oin dala urte batzuk Serenatia segitzen ebenetako askok etortziari laga detse, zahartzen juan diralako eta oindiok ez dogu lortu holako ekitaldi batera gazte mordua erakartzia. Halanda be, urtetzen garan baktorian beti topatzen dogu gurekin bat egitteko prest dagan jendia eta, jakiña, hor egoten dira musikuen lagunak, bikoteki diak... be".

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- | | |
|--------------------------|-----------------------------|
| 1) Kardiologia | 10) Radiologia |
| 2) Zirugia | 11) Urologia |
| 3) Dermatologia | 12) Traumatologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 13) Koloproktologia |
| 5) Análisi Klinikoak | 14) Erizaintza |
| 6) Ortodontzia | 15) Foto-depilazio Unitatea |
| 7) Otorrinolaringologia | 16) Psikologia |
| 8) Psikiatria | 17) Neurofisiologia |
| 9) Barne Medikuntza | |

BERRIA

Gabonetako OTARRA

<p>Gabonetako OTARRA</p> <p>Prezioa: 1€</p> <p>Zbk:</p>	<p>Gabonetako OTARRA</p> <p>2.000 €ko</p> <p>balioa duen Otarra</p> <p>Prezioa: 1€</p> <p>Zbk:</p> <p>Zozketa 2019ko abenduaren 11an egingo da</p>	<p>Euskara Elkarte</p> <p>Inklusioa 15 egunetan aurretik ez bada, erabakiari aurreko jaiak dira.</p>
---	---	--



– salmenta lekuak –

- | | |
|-----------------------|-----------------------------|
| – ARRIOLA PRENTSA | – MARIA OSPITXAL (Calbeton) |
| – ECHETTO PRENTSA | – KULTU TABERNA |
| – ISASI OKINDEGIA | – ZUBI-GAIN TABERNA |
| – BOLINTXO OKINDEGIA | – GURIDI TABERNA |
| – ARRIAUNDI OKINDEGIA | – UDAL EUSKALTEGIA |
| – MUGIKA HARATEGIA | – AEK EUSKALTEGIA |
| – OTEGI HARATEGIA | |

Loreto Imazen organo kontzertua San Andres elizan

SANTA ZEZILIA EGUNERAKO ORGANO KONTZERTUA ANTO-LATU DABE SAN ANDRES ELIZAN. Loreto Imaz organista eta klabezinistak 7 urterekin ekin zetsan musikia ikastiari eta gurian emongo daberen kontzertuak urte honetan ikasitako guztia erakusteko aukera bikaina emongo detsa. Hauxe da eskinduko daberen programa: "Toccatà Prima" (G. Muffat 1653-1704), "Chacona en f." (J. Pachebel, 1653-1706), "Fantasia pro Organo à 5 vòcum" (J.S. Bach 1685-1750), "Consolation Re" (F. Listz 1811-1886), "Improvisation" (E. Bonnal 1880-1944), "Arabesque" (L. Vierne 1870-1937) eta "L'ange à la Trompette" (J. Charpentier 1933-2017).

Joko daberen organua, bestalde, "altxorra" da adituendako. Bilboko

"Melcher, Mar & Cia. Constructores de Organos de Iglesia y de Salon" etxian egindako organuarengaitik 35.000 pezeta pagau zittuen eta inauguratzeko kontzertua 1922ko maiatzaren 25ian izan zan. Belen Sagarzazu organista eibartarrak esandakuaren arabera, "beste toki batzuetako organuak konpondu dittue, baiña Eibarko elizan darguana jatorrizkoa da, ez dabe ezer moldatu". Halanda be, 2022xan 100 urte beteko dittu eta, horregaittik, mendeurrenerako garbittu eta pixkat konpondu nahi dabe eta horretarako dirua biltzen hasitta dagoz. Hillero, lehen domekako mezan Parrokiako Abesbatzak kontzertua emoten dau eta bertan bazten daberen dirua horretarako gordetzen dihardue.



SANTA ZEZILIA OSPATZEKO EMANALDIXAK

Eguaztenian, 17:00etan, Juan Bautista Gisasola musika eskolakuak egingo dabe kalejira, Portalean hasitta. **Barixakuan**, barriz, 19:00etan hasiko dabe kalejira Usartza txistulari taldekuak. **Serenatia**, betiko lez, gaberdixan hasiko da, Untzagan eta, horrekin batera, Musika Bandakuak **hillaren 24an** emongo dabe Santa Zezilia kontzertua, 12:30xetan Coliseo antzokixan.

FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean

Bulegoa
Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Javier Martin doktorea
Aurpegi-masailtako Kirurgilaria

- **AURPEGIA
GAZTETZEKO
KIRURGIA**
- **AURPEGIKO
KIRURGIA
ESTETIKOA**

KONTSULTAK:
Centro Médico Eibar
KIRURGIAK:
Policlínica Gipuzkoa

679 334 371
943 120 200






On egin!

GIDA GASTRONOMIKOA

...eta kitto! eta Barren astekarietan
argitaratutako jatetxe eta tabernen gida
2019ko azaroak 15



AGUIÑASPI taberna

Urkizu 22. EIBAR

943 12 80 86

Eguneko menua, menu berezia,
gosariak, plater konbinatuak, razioak,
bokatak, hanburesak, pintxoak...



ALBERT taberna

Miguel Aginaga, 6ac EIBAR

943 38 31 77

Eguneko menua.
Asteburueta menua eta karta.



ARKUPE gastro pub

Isasi 2. EIBAR

943 70 26 91

Gosariak, eguneko menua, karta,
talde-menua, plater konbinatuak,
hanburesak, catering zerbitzua.



ASTELENA gastroteka

Estaziño 7. EIBAR

943 20 70 32

Txuleta, razioak, pintxoak...
Especialitatea: jatorrizko kafeak eta teak.
Egunero kafe-txigortua.



BAISI taberna

Urkizu 11. EIBAR

943 53 08 16

Especialitatea: patata-tortilla,
Entsaladilla, bokatak, hanburesak...
Ardoetan aukera zabala.



BARATZE gourmet

Bidebarrieta, 39. EIBAR

943 84 55 03

Jatetxe-taberna kontzeptu berria.
Pintxoak, razioak, karta eta ardo aukera
zabala. Sormen sukaldaritza.
Etxera eramateko janaria.



BELAUSTEGI BASERRIA jatetxea

San Migel Gaina. ELGOIBAR

943 74 31 02

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak,
urrezko eta zilarrezko ezkontzak,
enpresa bazkariak eta kintoak. Karta,
eguneko menua eta dastatze-menua.



BIRJIÑAPE-BERRIA kafetegia-jatetxea

T. Etxebarria 16. EIBAR

943 82 13 41

Eguneko menua, bokatak, talde bazkari
eta afariak, jaunartzeak, bataioak...
Zure aurrekontura egokitzen gara.
Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.



BOSSA gastroteka

Ego Gain 7. EIBAR

943 20 67 53

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak,
bokatak, razioak, pizzak eta
hanburesak.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 74 12 30

Hemengo jaki freskoekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, Lunch-ak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak...



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea 1. ELGOIBAR

943 25 60 28

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KANTABRIA jatetxea

Arrate. EIBAR

943 12 12 62

Karta, menu bereziak, eguneko menua, enpresa bazkariak, ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...



KILI KILI croissanteria

Ibarkurutze 12. EIBAR

943 20 24 01

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 75 61 66

Eguneko menua 12 € astegunetan. Asteburuetako eta jaiegunetako menua 14 €an. Pintxoak eta ogitartekoak arratsaldeko 20:00ak arte egunero.



ONGI ETORRI taberna

T. Etxebarria 21. EIBAR

943 20 70 07

Gosariak, pintxoak, karta, talde-menua, catering zerbitzua...



PAULANER garagardotegia

Ego Gain 3. EIBAR

943 20 13 29

Garagardoetan aukera aparta, gosariak, eguneko menua, espezialitateak, hanburgesak...



PORTALEA taberna

Bista Eder 10. EIBAR

943 20 68 68

07:30etik zabalik. Eguneko menua. Ostiraletan hanburgesa menu berezia. Ostiral eta zapatuetan karta eta plater konbinatuak. Aste barruan enkarguz.



SALENTO ristorante italiano

Pedro Migel Urruzuno 10. ELGOIBAR

943 74 01 96

Eguneko Menua, pizza italiarrak. Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar.



TIRO PITXON jatetxea

Arrate. EIBAR

943 20 88 59

Eguneko menua, menu bereziak, karta, ospakizunak. Bi jantoki (bakoitzean 80 pertsona). Astelehenetan itxita.



TXALTXA jatetxea

Isasi 7. EIBAR

943 20 11 26

Plater konbinatuak eta razioak barran. Eguneko menua, menu berezia eta karta jangela nagusian. Astelehenetan itxita.



Hotel **TXARRIDUNA** jatetxea

Ermuaranbide 1. ELGOIBAR

943 74 04 90

Eguneko menua, kinto ospakizunak, enpresa menuak, karta, bataio eta jaunartzeak.

Jon Osa (igerilaria):

“AEBn txikitatik bultzatzen dituzte umeak kirola egitera”

Hainbat urtetan zehar etorkizun handiko igerilaria zela erakutsi zuen Jon Osak Eibar Igerixan taldean eta ozeanoa zeharkatu zuen abentura berria hasteko. Igerian ez, hegazkinean egin zuen bidaia, baina uretan maila handia duela erakutsi du Missouriiko Unibertsitatean (AEB) daraman denbora gutxian. Igerian egiteaz gain, Bussiness-ko karrera ikasten dihardu, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduaren antzekoa.

- Nola sortu zitzaizun EEBB-ra joateko aukera?

Orain dela bi urte nire bizitzarekin zer egin pentsatzen hasi nintzen, eta igeriketarekin eta ikasketekin jarraitu nahi nuela argi nuen. Horretarako, aukera onena AEBra etortzea zen, kirola eta ikasketak uztartzeko aukera onak daudelako. Orduan, agentzia batekin harremanetan jarri nintzen eta eurek lagundu zidaten hona etortzen.

- Zer moduz orain arte?

Oraingoz ondo moldatu naiz eta berdin jarraitzea espero dut. Hori bai, hemengo bizitza guztiz desberdina da Euskal Herrikoaren aldean.

- Alde handia somatu duzu?

Bai. Jendearen pentsaera, ohiturak, ikasketak... guztiz ezberdinak dira. Adibidez, egun normal batean bi ordu inguru pasatzen ditut unibertsitatean. Euskal Herrian egongo banintz, zazpi ordu egon beharko nintzateke. Bestetik, Eibarren baino ordu gehiago egiten ditut entrenatzen.

- Nolako da zure egunerokoa?

Orokorrean, goizeko 5:30ean esnatzen naiz, eta 6:00etatik 8:00etara entrenamendua egiten dut. 9:30-12:15 bitartean klaseak izaten ditut. 14:00etan uretara sartzen naiz berriz eta 16:00etan amaitzen dut jarduna. Arratsaldeak libre izaten ditut, baina martitzenetan eta eguenetan umeei eta helduei igerian egiten erakusten diet.

- Txapelketarik lehiatu duzu AEBn?

Bost txapelketatan lehiatu naiz eta nahiko emaitzak onak izan dira, baina hemendik aurrera denbora horiek hobetzea espero dut.

- Zein disziplinan aritzen zara erosoan?

Bizkarrekoan eta crawl-ean. Hona iritsi naitzen momentutik entrenatzaileak beti distantzia motzak jarri dizkit: 50, 100 eta 200 metrokoak.

- Mailari dagokionez, al daketarik igarri?

Aurkariak askoz hobekak dira hemen. Hemen txikitatik bultzatzen dituzte umeak kirola egitera eta garrantzi handia ematen zaio kirolari. Gainera, askoz igerilari gehiago dago eta, ondorioz, maila handiko igerilari gehiago.



- Zeintzuk dira zure helburuak AEBn?

Esperientziak gozatzea, batez ere. AEBko estatu mailako txapelketara joatea nahiko nuke eta unibertsitateari ahal dudana gehien laguntzea.

- Nola moldatzen zara hizkuntzarekin?

Etorri nintzenean nahiko zaila egin zitzaidan jendearekin berba egitea, euren azentua nahiko arraroa delako, baina denborarekin nire ingelesa eraldatu da eta hobera joan dela esango nuke.

- Noiz arte egoteko asmoa duzu?

Oraingoz, lau urte egingo ditut hemen. Karrerak irauten duena.

- Eibar Igerixanekoan jarduna jarraitzen duzu?

Bai, Gabonetan eta udan bueltatzen nintzenean Eibar Igerixanekin entrenatzen eta lehiatzen jarraituko dut.

- Zein da zure ametsa igeriketa munduan?

Edozein igerilariren ametsa Olinpiar Jokotara joatea da. Betidanik izan da nire ametsa, baina oso zaila izango da eskuratzea.



Herriko zortzi talde ari dira Euskararen Ginkanaren FINALERAKO LEHIAN

Debabarreneko ikastetxe guztietako DBHko 4.mailako ikasleei zuzendutako Euskararen Ginkana martxa betean ari da garatzen. Kutxa Ekoguneak, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean sustatzen du lehiaketa eta, gure eskualdean, Deba, Mutriku, Elgoibar, Eibar eta Soraluzeko udalen eta Eibarren AKEBAI plataformaren laguntzarekin ari da garatzen. Aurten Debabarrenera lehenengoz heldu den lehiaketarako gaia "hizkuntza-ekologia" da eta, beraz, euskara eta ekologiaren arteko lotura izango dira ardatz lehiaketan.

Gure eskualdeko herrietako DBH azken mailako ikasleei zuzendutako Euskararen Ginkanaren lehen edizio honetan, guztira, 21 taldek eman dute izena lehiaketan parte hartzeko eta horietako zortzi Eibarko ikastetxeetako ikasleek sortutako taldeak dira: "Eibar BHI 4.B", "Ginkanklinak", "Ei-

barko zaleak", "L.K.B.", "CD Urki", "Frigooina", "Gora Bihotzak" eta "Erleak".

"Euskararekin eta euskaraz dibertitzeko" lehiaketak bi fase izango ditu. Lehenak lau asteko iraupena izango du eta martxa betean doa: euskararenginkana.eus webgunean taldeek burutu beharreko proba bat argitaratzen ari dira astero, urriaren 23az geroztik, eta taldeei astebeteko epea ematen zaie erantzunak bidaltzeko. Lehen fase honi dagozkion lau probetatik hiru burutu dira eta laugarren eta azkena martxan dago. Azaroaren 20an amaituko da lehen fasea eta proba hauetan puntu gehien lortzen dituzten lau taldeek jokatu dute bigarren fasea.

Finala edo bigarren fasea abenduaren 4an jokatu da Eibarren, Coliseo antzokian, eta bertan erabakiko da nor den Debabarreneko Euskararen Ginkanaren talde irabazlea. Horretarako, baina, beste lau proba bete beharko dituzte aurrez aurre eta horren arabera erabakiko da irabazlea.

Guztira 1.200 euro banatuko dira saritan talde finalisten artean. Talde irabazleak 800 euroko saria jasoko du. Bigarren geratzen den taldea 200 euroko saria izango du. Eta hirugarren eta laugarren geratzen diren taldeentzako 100 euroko balioa duen saria egongo da.

Bestalde, aste honetan bertan jakin dugunez, ekitaldia aurkezten Eibarko bi artista izango dira, gainera: Andrea Covadonga antzezlea eta Andrea Garcia musikaria.



CDURKI



GINKANKLINAK



EIBARKOZALEAK



EIBARBHI



GORA BIHOTZAK



ERLEAK



FRIGOOINA



LKB

Gurasoak berbetan!

FAMILIA GIROAN
euskera praktikatzeko
aukera ezin hobea!



...eta kitto!
Euskara Elkartean

Eskulanak



Hilean Behin
Barixakuak
Jolasian



17:00etatik
18:00etara

HHko
familientzat



DOAN!



PROBATU NAHI DUZU?

Zatoz azaroaren 22an (ostirala) ...eta kitto!-ra, 17:00etan

Avia Saskibaloiak partidu zaila izango du bihar

Gipuzkoako 3. mailako bere multzoko lideraren aurka jokatu beharko du gure herriko senior mailako taldeak goiko postuei begirako neurketa. Garaipenekin jarraitzeko asmoa izango dute, aurkari zuzena aurrean, bihar 14:00etatik aurrera Tolosako Usabal kiroldegian jokatu den norgehiagokan. Aurreko jardunaldian 76-57 izan ziren garaile eibartarrak Irungo Erroibideren aurrean, Mikel Lekunberri eta Aitor Arakistainen agindupean. Avia Eibar Saskibaloiko junior mailako taldeei dagokionez, mutilenak 39-40 irabazi zuen Mondragon B-ri egindako bisitan eta neskenak 18-38 galdu zuen etxean Ordiziarrekin. Kadete mailako taldeak ez zuen zorte



handirik izan eta denboraldiko lehenengo porrota jaso zuen Arrasaten, Mondragon Unibertsitatearen aurrean (70-60). Infantil mailako taldeek galdu egin zuten.

Gorka Agirregomezkortak irabazi egin zuen Eskoriatzako K-1 borroka kirol ikuskizunean



Aurreko zapatuan Debagoieneko herri horretan jokatuak Basque Country txapelketan parte hartu zuen Gorka Agirregomezkorta Armeria Eskolako gimnasioko ordezkariak K.O.-z irabazi zuen hirugarren asaltoan, 80 kilotik beherako mailan jokatzen duen bere lehen Euskadiko txapelketan. Inda Team taldeko junior mailako kirolariak borroka polita egin zuen eta ondo nagusitu zen hainbat borrokaldi hartu zituen saioan, pisu ezberdineta-ko 59 borrokalarirekin.

Eibarrek Genuine Liga hasiko du asteburuan

Eibar FT-k Tarragonan hasiko du asteburu honetan bere bigarren denboraldia Genuine Ligan, eta Deportivo, Mallorca eta Elx izango dira bere lehenengo aurkariak edizio honetan. Ander Romarate taldearen koordinatzaileak "iaz ikasitakoa praktikan jartzera" irtengo direla dio. Eibarko espedizioa gaur abiatuko da Kataluniarantz eta bihar goizean galiziarrei egingo diete aurre, arratsaldean Mallorcaren kontra jokatzeke. Domekarako geratuko da Alacantekoen aurkako partidua, Eibarrerako bidea hartu aurretik.

Elgoibartarrak nagusi Euskal Herriko hiru-txirlo txapelketan

Bolatoki bakarra falta denean, elgoibartarrak ia-ia poltsikoan dute Euskal Herriko txapela janztea, aurreko asteburuan San Pedron jokatuakoa asko igarri zelako etxean zihardutela: "San Migelekoek prestatzen dute bolatoki hori eta euren botatzeko erara jarri zuten, emaitzek argi erakusten dutenez". Eurak izandako nagusitasunaren seinale da lehen sei sailkatuetatik bost lortu zituztela. Horrela, Angel Ibarluzeak irabazitako tiral-

dian Xabier Loiolak ere tartea handitzea lortu zuen, hiru txirlo jo ondoren, eta eskura jarri zaio txapela bihar Markina Xemeingo Uha-goneko bolatokiko azken jardunaldiaren aurrean. Eguraldi txarrari aurre eginez Elgoibarren bildu ziren 61 bolariren artean, bestalde, Ibarluzea izan zen onena eta honek ere Gipuzkoako bolari onenaren saria ere ia-ia eskuetan dauka: hor Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetako txirloak batzen dira.



ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

EIBAR (atsedena)

Emakumezkoen 2. Maila

Barcelona B - EIBAR (etzi, 12:30)

3. Maila

VITORIA - Ariznabarra (etzi, 17:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR B - Real Sociedad B (etzi, 16:00)

Ohorezko Erregional Maila

EIBAR URKO - Amaiak Bat (etzi, 12:30)

1. Erregionala

URKI (atsedena)

EIBARTARRAK - Elgoibar (bihar, 15:45)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

EIBAR - Valvanera (bihar, 18:00)

Euskal Liga

Antiguoko C - EIBAR B (bihar, 12:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Atheletic - EIBAR (bihar, 11:00)

FOBALL-ZALETUA

La Jara - Los Paisanos (bihar, 09:00)

Bar Txoko - Slow XOK (bihar, 09:00)

Garajes Garcia - Bar Areto (bihar, 10:30)

Chic - Feredu (bihar, 12:00)

Azkena Adahi - JMR (etzi, 09:00)

Ipur Sagardotegia - Durango (etzi, 10:30)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Trapagaran - SOMOS (bihar, 18:50)

Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

Txingudi - MECALBE (etzi, 12:00)

Gipuzkoako 1. Maila

Labarra Pulpo - HARITZA (bihar, 19:00)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

AVIA (atsedena)

Emakumezkoen Euskal Liga

AVIA - Landarbasso (etzi, 12:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 3. Maila

Take Coach - AVIA (bihar, 14:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - WP Donostia (gaur, 21:45)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - Leioa (etzi, 15:35)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

120 eibartar helmugaratu ziren Behobia-Donostia maratoni erdian

Euria, hotza, haizea, kazkabarra ere bai batzuetan... ez zuten eguraldi aproposena izan aurten Behobia eta Donostia lotzen dituen 20 kilometroko herri-lasterketan parte hartu zutenek. Hala ere, 27.074 atletek amaitu zuten aurreko domekako maratoni erdia, tartean 120 eibartar: 91 gizonetako eta 29 emakumetzako. Erreterian bizi den Chakib Lachgar marokoarra izan zen lehena helmugaratzen Boulevardean (1:00:57), azken metroetan Iraitz Arrosperidi (4 segundora) eta Ivan Fernandezi

(13ra) aurea hartu eta gero. Emakumetzakoetan Alacanteko Gema Barrachinak (1:11:38) aurea hartu zien Diana Martin, 14 segundora, eta Gisela Carrioni, 23ra. Eibartarrei dagokienez, Pello Berrizbeitia izan zen azkarrena gizonetzakoetan eta Aitziber Urkiola emakumetzakoetan. Bitxikeria gisa, iaz ere eibartarren kopuru bera izan zen eta 2017an bi lagun gehiagokoa. Eibartarren parte-hartzea, beraz, asko egonkortu da azken urteotan. Hori bai, urtero ez dira berdinak ibilbidea egiten ausartzen direnak.



94	Pello Berrizbeitia	1h10'16"	5390	Jose Arizaga	1h33'16"	11163	Oscar Saez	1h43'06"	16683	Carlos Balseiro	1h52'10"
128	Asier Cuevas	1h11'17"	5513	David Ruano	1h33'33"	11188	Julen Berbois	1h43'07"	17455	Susana Etxeberria	1h53'34"
359	Juan Zubiaurre	1h15'11"	5562	Ander Quintas	1h33'39"	11197	David Suarez	1h43'08"	17456	Susana Agirregomezkorta	1h53'35"
383	Kepa Varela	1h15'27"	5586	Gorka Larrañaga	1h33'41"	11238	Gorka Fernandez	1h43'12"	17536	Alexander Larrauri	1h53'42"
899	Liber Prieto	1h19'19"	5629	Maialen Zubizarreta	1h33'47"	11460	Teresa Txurruka	1h43'31"	17683	Raul Miguel	1h54'00"
934	Jon Astigarraga	1h19'30"	6227	Victor Calderon	1h34'54"	11475	Aitor Sainz	1h43'32"	17836	Edorta Marquez	1h54'14"
1100	Javier Murcia	1h20'29"	6247	Ion Zubiate	1h34'56"	11633	Nerea Ziaran	1h43'47"	18057	Jon Illarramendi	1h54'40"
1139	Eduardo Uribe	1h20'43"	6394	Aitor Muguruza	1h35'11"	11638	Luis Alberdi	1h43'48"	18058	Eduardo Alvarez	1h54'40"
1315	Andoni Mayo	1h21'40"	6406	Asier Laspiur	1h35'12"	11666	Patricia Amundarain	1h43'50"	18086	Nora Illarramendi	1h54'40"
1420	Aitor Fernandez	1h22'17"	6764	Ibon Arizaga	1h35'53"	11676	Ander Larrañaga	1h43'52"	18547	Aitor Muguruza	1h55'44"
1544	Eneko Azurmendi	1h22'49"	6882	Harkaitz Zabala	1h36'06"	12081	Jon Mardaras	1h44'29"	19043	Maider Otaola	1h56'32"
1774	Alex Higuera	1h23'51"	6964	Ander Maria	1h36'15"	12187	Idoia Uruñuela	1h44'39"	19097	Koro Blazquez	1h56'39"
1963	Jorge Rubio	1h24'32"	7397	Ibon Ramirez	1h37'05"	12188	Jon Baglietto	1h44'39"	19126	Juan Miguel Gonzalez	1h56'42"
1969	Aitor Bolinaga	1h24'32"	7471	Bittor Ugarteburu	1h37'13"	12265	Gorka Gurrutxaga	1h44'47"	19570	Jose Antonio Alberdi	1h57'31"
1986	Aitor Oiarzabal	1h24'38"	7720	Izaskun Aizpiri	1h37'34"	12503	Jon Garcia	1h45'12"	19665	Iker Lasuen	1h57'45"
2063	Aitziber Urkiola	1h24'47"	7857	Eneko Urain	1h37'48"	12763	Borja Guerrero	1h45'41"	20070	Mikel Zabaleta	1h58'33"
2189	Ander Agirre	1h25'19"	8081	Juan Solozabal	1h38'05"	12915	Humberto Sarasua	1h45'56"	20072	Gorka Apraiz	1h58'33"
2291	Zigor Iriarte	1h25'41"	8463	Asier Arana	1h38'47"	12957	Hector Gisasola	1h46'00"	20474	Andrea Perez	1h59'31"
2575	Fidel Gonzalez	1h26'37"	8502	Ibai Alonso	1h38'51"	13530	Ernesto Etxabe	1h46'56"	20606	Helene Oiarzabal	1h59'48"
2845	Gorka Gallastegi	1h27'24"	8504	Jesus Angel del Egido	1h38'51"	13614	Roberto Gallego	1h47'06"	20613	Juan Oiarzabal	1h59'49"
3552	Alexander Sarasua	1h29'08"	8810	Marina Kruzelaegi	1h39'17"	13627	Oier Cobo	1h47'07"	20692	Nora Varela	1h59'58"
3589	Raul Fernandez	1h29'12"	9158	Jose Etxaniz	1h39'51"	13647	Iñaki Errasti	1h47'08"	20946	Eneko Eizagirre	2h00'36"
3749	Miren Gallastegi	1h29'35"	9173	Ignacio Gisasola	1h39'52"	14914	Luis Alfonso Conde	1h49'05"	21202	Elena Gisasola	2h01'21"
4970	Idoia Izagirre	1h30'07"	9399	Ivan Agote	1h40'14"	14956	Paula Pereira	1h49'10"	22085	M ^o Carmen Rubia Gil	2h04'06"
4130	Luis Tomas de Lorenzo	1h30'32"	9655	Unai Fernandez	1h40'38"	15112	Jokin Alberdi	1h49'23"	22096	Juan Manuel Lopez	2h04'08"
4518	Enrique Salgado	1h31'23"	9837	Txomin Aizpurua	1h40'55"	15826	Agus Azpiri	1h50'40"	22272	Ruben Lopez	2h04'45"
4908	Eduardo Kapelastegi	1h32'15"	9990	Mikel Astigarraga	1h41'08"	15872	Marina Labaka	1h50'44"	22285	Jose Javier Garcia	2h04'47"
4942	Felipe Sanchez	1h32'21"	10555	Naia Saez	1h42'08"	16136	Lourdes Iriarte	1h51'11"	22287	Erika Romero	2h04'47"
5054	Isabel Etxaniz	1h32'33"	10976	Ivan Makarenko	1h42'46"	16377	Luis de Blas	1h51'36"	22290	Eva M ^o Garcia	2h04'48"
5218	Ainhoa Ugarte	1h32'54"	11150	Amaia Abanzabalegi	1h43'05"	16418	Miquel Migelena	1h51'39"	22729	Iñigo Astigarraga	2h06'29"



Ipuruako jubeniil oinarri mailako taldea, hiru prestatzaileekin.

Bi domina Ipuruako gimnastentzat Espainiako taldekako txapelketan

Senior mailako boskoteak zilarra irabazi zuen aurreko domekan jokatutako Espainiako Kopako hiru-garren fasean. Hiru pare maza eta aro bi erabili zituzten bi minutu eta erdiko ariketa egiteko eta, irailetik hona jokatutako beste zazpi lehiaketetan moduan, podiumera igotzea lortu zuten oraingoan ere. Bezperan, zapatuan, jubeniil oinarri mailako taldeak brontzea irabazi zuen taldekako Espainiako txapelketan, hiru pilota eta zinta birekin eginda-

ko ariketari esker. Maila horretan Ipuruak lortzen duen lehenengo domina da Espainiako txapelketan; gainera, 101 talderen artean postu hori lortzea ez da halamoduzko lortpena. Asteburu honetan senior eta junior mailako taldeek Euskalgym Galan hartuko dute parte, urtero moduan tapiz gainean munduko gimnasta onenekin batera jarduteko aukerarekin. Gaurtik aurrera BEC-en eta Casillan izango dira oinarri mailako beste bi taldeak ere.

Prestigio handiko garaipenak lortu zituzten Somosek eta Mecalbek

Eibar Eskubaloiko senior mailako hiru taldeek emaitza onak lortu zituzten aurreko asteburuan, hirurek etxean jokatzen zutela aprobetxatuz. 1. Nazional mailako Somos Eibarrek 27-25 irabazi zion Zaragozako Dominicosi neurketa oso borrokatuan: atsedendira bost goleko aldearekin joan eta gero, bigarren zatian aragoiarrek asko estutu zuten Eibarko taldea. Emakumezkoen Mecalbe Eibar ere bi goleko aldearekin nagusitu zitzaion Ereintza Beissier taldeari (25-23), min hartuta dagoen Nahia omentzeko balio izan zuen neurketan. Gizonezkoen bigarren taldea, Haritza, berdinketarekin konformatu behar izan zen Urola Laztimendiren kontrako probintziako 1. mailako partiduan. Harrobiari begira, Teknikerreko jubenilek aurrerapausu bikaina eman zuten Arrasate B-ren gainetik pasatuta (25-21). Kadeteetan, bestalde, bakarrik Teknikerre lortu zuten irabaztea, Komatek eta Muelles Zalduak-ek amore ematen zuten bitartean.



Azken partiduetako talde-lanak sendotu egin du Somos.

Beste asteburu bikain bat Urbat-Urkontronikeko waterpolistentzat



Unax Unzeta jaurtiketa egiten.

Senior mailako talde biak, zein baino zein, indartsu jarraitzen dute eta emakumezkoenak bosgarren garaipena eskuratu zuen sei jardunaldietan, oraingoan Getxori 1-17 irabazita, "denboraldi hasieran pentsaezina zena gauzatze bidean". Gizonezkoen senior taldeak ere sendo jarraitzen du, orain arte jokatutako partidu guztiak irabaziz; azkena izan da Leioakoa, eta han 8-14 nagusitu zen "defentsa-jokoaren seriotasuna berreskuratuz". Jubenil mailako taldeak ere bikain jokatu zuten eta 5-23 irabazi zuten Irunen, Bidasoa XXI taldearen aurrean. Bestalde, infantil mailako mutilen taldeak 16-9 irabazi zion Easori, bi egun lehenago Waterpolo Navarrarekin Iruñean 17-9 galdu eta gero.

Txakur-krosean geratu barik Eibarko bikotea

Inguruan lasterketarik ez badago, Eibarko bikoteak ez du horregatik amore ematen. Oraingoan Teruel ingurura jo zuten eta han Blancas herriko 1. Azafran kanikrosean lehiatu zuten. Bederatzi kilometroko eta desnibel gutxioko ibilbidean estatu guztiko parte-hartzaileak izan ziren eta eibartarrak aurrean sailkatu ziren: Andoni Mayo eta Dexter txakurra 3. postuan eta Sonia Dominguez eta Zeus bosgarrenean, podiumetik oso segundo gutxira.



22 eibartar izan ziren Ipuruan igeriketako Neguko Ligaren bigarren jardunaldian

Aurreko zapatuan, eskolartekoen eta federatuen parte-hartzearekin, Neguko Ligaren bigarren jardunaldia jokatu zen gurean, absolutu, junior eta infantil mailetako ordezkariekin. Absolutuan Maite Barruetaña 400 estilo eta 100 bularretan nagusitu zen, Elene Oyarzabal 100 bizkarrean eta Roke Etxeberria 50 tximeletan. Lau garaipen horietatik aparte, 4x100 erreleboetan Eibarko emakumezkoena (Nekane Tejedor, Paula Gabilondo, Elene Oyarzabal eta Maite Barruetaña) izan zen markarik onena. Juniorretan, Kai Zubiaurre hiru pro-

betan nagusitu zen, Paula Gabilondok bi irabazi zituen eta Iraia Oruezabalek 200 tximeletakoa bereganatu zuen. Infantiletan, bestalde, Igor Ruizek (50 librean) eta Julen Bolunburuk (100 bularrean) lehenengo postua eskuratu zuten. Eskoletakoen lehiaketan, azkenik, sei garaipen lortu zituzten Eibar Igerixanekoek: bina Malen Beobidek eta Madi Maguregik eta bana Lucia Gabilondok eta Leire Larrañagak. Erreleboetan ere garaile izan zen eibartarren taldea, Maguregi, Maialen Gomez, Beobide eta Gabilondorekin.



PEDRO ARRIOLA: Udazkena Untzaga plazan.

Sanandresak ospatzen amaitu ohi dugu azaroa eibartarrok, baina ospakizunak lehenago hasten dira. Gastronomiak protagonismo handia izan du hilabete guztian zehar eta protagonista izaten amaituko du. Bihar Berakatz Zopa Txapelketa egingo da, etzi Bakailao Pintxo Lehiaketa eta Eskolarteko Bakailao Lehiaketa, hilaren 19tik 21era Pintxo Lehiaketa, 23an Txistorraren Eguna eta 24an Bakailao Lehiaketa. On egin.

Sanandresetako lehen mokadua

Mireia Alonso gastro-nomoaren arabera, *"Eibarrek beti izan du bakailao usaina"*. Barnealdeko hiria izanda, arrain-mota honek berebiziko garrantzia izan du Eibarren eta bakailao plater gozoak prestatu dira herriko sukaldeetan. *"Eibar bakailaoaren kapitala izaten jarrai dezala"*, adierazi zuen eguaztenean egin zen prentsurrekoan Iban Alkorta Bacalaos Alkorta arduradunak, eta, ohore hori mantentzeko, domekan emango zaio hasiera bakailaoaren festari.

Udaletxeko barruko patioak Bacalaos Alkorta III. Pintxo Lehiaketa jasoko du 12:30etik aurrera. Irungo 'Danako' (Euskal Herriko txapelduna), Hondarribiako 'Gran Sol' (Gipuzkoako txapelduna), Ermuko 'Kis-

ka' (Bizkaiko txapelduna), Gasteizko 'Waska' (Arabako txapelduna), Iruñako 'Baserriberri' (Nafarroako txapelduna), 'Getari' (Iparraldeko txapelduna), 'Viento sur' (Elgoibarko txapelduna), 'Giroa' (Ermuko txapelduna) eta 'Baratze Gourmet' (Eibarko txapelduna) arituko dira lehian, eta zuzenean kozinatuko dute.

Alonsok parte-hartzaileen maila handia nabarmendu du. *"Euskal Herriko onenak etorriko dira eta Debabarrenari protagonismoa emango diogu. Hemen ez dugu ezer asmatu behar, duguna ezagutarazi bainik, oso ona delako"*. Horregatik, pintxo onenari eta bakailaoaren tratamendu onenari saria emateaz gain, 'Km0 produktuen' presentzia onenari eta tokiko pintxo onenari saria



Mireia Alonso, Iban Alkorta eta Patxi Lejardi lehiaketako aurkezpenean.

emango diete baita ere. Pintxoak baino, *"miniaturazko sukaldaritza"* dela esaten du Alonsok. *"Gama altuko jakiak formatu txikian"*.

Bakailaoa gazte eta helduentzat

Horren aurretik egingo den ekitaldian, formatu txikiko sukaldariak izango dira, 10:30etik 11:30era XVI. Eskolarteko Bakailao Lehiaketa egingo baita. Eibar BHI, Aldatze eta La Salle Azitaingo 25 bikotek hartuko dute parte eta

pintxo lehiaketan parte hartuko duten sukaldarien aholkuak jasotzeko ahal izango dituzte.

Hilaren 24an, besitetik, helduen txanda izango da. San Andres XXVII. Bakailao Txapelketa egingo da Untzagan 11:00etan eta Eibarko elkarteek, eskualdeko etxeek eta koadrilek hartu ahal izango dute parte. *"Azken urteotan hazi egin da gazteen parte-hartzea"*, Patxi Lejardi zinegotziaren

arabera. Lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuek 300, 200 eta 100 euro eskuratuko dituzte, hurrenez hurren.

Berakatz-zopa, pintxoak eta txistorra

Eibarko Sarek 4. Berakatz Zopa Txapelketa egingo du bihar, zapatua, 11:30ean Untzagan eta hiru onenentzat sariak emango dituzte: 150 euro eta txapelak bikote onenentzat, 100 euro bigarrenentzat eta 50 euro hirugarren geratzen den bikotearentzat.

Hilaren 19tik 21era, Arrate Kultur Elkarteak antolatuta, Eibarko tabernarien arteko San Andres XVI. Pintxo Lehiaketa egingo da. Joan den urtean Baratze Gourmet tabernak irabazi zuen pintxo onenaren saria eta lehia bizia egongo da aurten.

Eibako Txirrindulari Elkarteak, berriz, XVII. Txistorraren Eguna egingo du azaroaren 23an, zapatuan. Bizikletazaleek kilometro bat txistorra presatuko dute eta, horrez gain, kirol erakustaldiak, musika, jokoak eta beste hainbat ekintza egingo dituzte.



Helduen bakailao txapelketaren 27. edizioa hilaren 24an egingo dute.





ELENE LIZARRALDE
(kazetaria)

“Raketistei omenaldia egin nahi diet”

Elene Lizarralde kazetari eta telebistako saioen zuzendari donostiarra Eibarren izango da azaroaren 22an “El silencio de Clara Lyndon” bere lehen eleberria aurkezten. Liburuan gerra ondoren hain ospetsuak egin ziren raketisten historia kontatzen du Miren Arrue raketista euskaldunaren bizitzaren bitartez: bere haurtzaroa Eibarren, adiskidetasunaren aurkikuntza, pasio profesionala Madrilen, amodioa... Hilaren 22an, barixakuan, Helmet Housen (Blas Etxeberria, 1, Coliseo ondoan) izango da, 18:30etik aurrera. Sarrera librea da eta Eibarrera etortzeko desiatzen dagoela adierazi digu.

- Oso ezaguna zara Euskal Telebistako lehen emisioa aurkezteagatik eta etxe horretako lehen aurkezleatarikoa izateagatik. Hala ere, Madrilen bizi zara aspalditik...

Urteak daramatzat Madrilen bizitzen, 17 urte egin nituen Antena 3-en. Gerora telebista lana utzi eta idazteari ekin nion. 2015ean argitaratu nuen lehen eleberraren hasierako online bertsioa, “Rocío en el corazón”, eta 2019an argitaratu dut “El Silencio de Clara Lyndon”.

- Zer dela eta erabaki zenuen raketistei buruz egitea?

Nire amaren bitartez izan nuen emakume raketisten berri, berak raketistak izandako lagunak zituelako Donostian. Antena 3an nengoela gogora etorri zitzaizkidan eta Madril, Bartzelona, Do-

nostia eta Eibar inguruko raketistak el-karrizketatu nituen. Eibarren Agustina Arrazola ezagutu nuen. Hori guztia orain dela 12 urte izan zen, eta harrিতa gelditu ziren, garai hartan oso gutxi hitz egiten zelako eurei buruz. Haserre samar zeuden, ordura arte inork ez zielako eskaini espero zuten oihartzuna. Momentu hartan ez nekien zer egingo nuen materia guzti horrekin, baina hitza eman nien egunen baten aditzera emango nituela. Eta bete egin dut.


- Zer jasotzen da zure eleberrian?

Jasotzen da euren nortasuna, esperientziak eta bizitzeko modua. Emakume raketisten historia jatorriz Eibarren jaio zen, baina gero Espainia osora zabaldu zen. Ijitoak ere bazeuden raketisten artean; azkenean ez ziren euskaldunak baka-

rrik. Gerra garaian eta ondoren, raketista izatea emakumeentzat soldata bat izateko aukera bat izan zen. Garai gogorak ziren eta emakumeek oso aukera gutxi zuten ikasteko edo lan bat izateko. 14 edo 15 urterekin hasten ziren eta 30 urteren inguruan uzten zuten. Arazo pila bati egin zioten aurre. Familia osoa mantentzen zuten. Baina, horrez gain, kirola asko gustatzen zitzairen, eta kirolak beste modu batean bizitzeko aukera ematen zien.



- Eibarrera etorriko zara hurrengo astean. Berezia da Eibar zuretako?

Oso berezia. Eibarko raketistatik gabe ez legoke eleberririk. Niretzat oso garrantzitsua da egun hau, benetan. Gehienak hil egin dira, baina emakume hauei nik pertsonalki egin nahi didan omenaldia da, eskerrona adieraziz.



Azaroko argazki erakusketak

Eibarko Klub Deportiboan Argazkilaritza Taldearen eskutik, azaroaren 30era arte egongo da honako erakusketak ikustera joateko aukera: Enrique Lorenzoren argazkiak, El Ambigu tabernan; Toni Catany argazkilariairenen lanak, Depor tabernan; eta Silvia Tardio, Estrella Tardio eta Fernando Solanaren erakusketa kolektiboa, Portalea jatetxean.





Asteburuan etorriko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots Eibarrera

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 'Bizi dantza' ikuskizunaren estreinaldia egingo dute asteburuan Hezkuntza Esparruan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Lau saio eskainiko dituzte guztira: bihar 16:30ean eta 19:00etan eta domekan, berriz, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak 8 euro balio du eta aurretik saldu ez direnak leihatilan ipiniko dituzte salgai. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, Hezkuntza Esparruko aretoaren gehieneko edukiera zaintzeko, ikusle guztiek sarrera erosi beharko dute.



Aukeratu dituzte San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak

Azaroaren 24an egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak San Andres jaien bueltan urtero antolatzen duen Bertso Jaialdia eta bertan abestuko dituzte aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleak saritutako bertsoak. Helduen mailan, lehen saria Iñigo Legorburu hernaniarrak eskuratu du eta bigarrena Jesus Mari Gisasola "Trunboi" eibartarrak. Eta 16 urtetik beherakoen artean, lehen saria Beñat Oñederrak eraman du eta bigarrena June Alberdik. Biak dira Mogel Ikastolako ikasleak.

Jaialdia Portaleko areto nagusian izango da, 18:30etik aurrera. Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara jardungo dute Onintza Enbeita, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga eta Maddalen Arzallus bertsoariak. Sarrerak Sagar Bitza, Kultu eta Guridin daude salgai astelehenaz geroztik 6 eurotan eta egunean bertan ere egongo da sarrerak erosteko aukera, Portalean.



Nerea Uribarriren margo-erakusketa

Aurreko barixakuz geroztik ikus daitezke Nerea Uribarriren margolanak Topalekuan. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik, gaur 19:00etatik 21:00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



"Elisa y Marcela" antzezlan

Gaur 20:30ean hasiko da "Elisa y Marcela", A Panadaria taldearen antzezlan Coliseo antzokian. 1901ean A Coruñan ezkondu ziren bi emakumeren istorioa kontatzen du lanak. Gena Baamonderen zuzendaritzapean, Areta Bolado, Noelia Castro eta Alién Kendelman antzezleek jardungo dute eszenatokian. Sarrerak 12 euro balio du (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



"A zer nolako heroiak" umeendako filma

Umeendako proiektio berezia antolatu dute biharko, XX. Asier Errasti Film Laburren Jaialdiaren egitarauaren baitan: 11:00etan "A zer nolako heroiak" izenburukoa emango dute, euskeraz eta dohainik, Portaleko areto nagusian. Proiektioari laguntzeko, bestalde, filmarekin zerikusia duen material didaktikoa banatuko dute.

Asier Errasti eta Javier Agirresarobe omendu zituzten jaialdiko amaiera galan

Zapatuan Coliseo antzokiak hartu zuen gala berezian banatu zituzten XX. Asier Errasti Film Laburren Jaialdiko Javier Agirresarobe Sariak. Edizio honetan, fikziozko lan onenari saria Julia de Paz zinemagilearen "Ama" lanari eman diote, "gure gizartean oso presente dagoen egoera bat azaltzeagatik. Gidoi gordin eta irmo baten bidez, interpretazio bikainek gu hunkitzea aise lortzen dute". Fikziozko atalean bigarren saria, berriz, "Una mujer completa" (Ceres Machado) lanak eskuratu du. Epaimahaiaren berbetan, "izan ere, sentsibilitate eta baikortasun handiz sufritzen ari diren bi pertsonen momento intimo bat islatzen du. Protagonistaren interpretazioari aipamen berezia egin nahi diogu, hitz eta begirada bakoitzean egia transmititzen du-eta". Euskerazko film labur onenaren saria Maddi Barrenetxea eta Marta Teijeiraren "Hotzean garbitu" izenburukoak jaso du, "espero ez den istorio originala eta dibertigarria izateagatik. Bi aktoreen lana ezinhobea da pieza honetan, non narrazioaren arintasunak ikuslea harrapatzen duen". Eta animaziozko film labur onenari saria "Soy una tumba" (Khris Cembe) lanak eraman du, "istorio potente eta hunkigarri bat sortu izanagatik. Animazio zaindu batek eta istorio lokal honek publiko anitz batekin konektatzeko ahalmenak ahalbi-



Antonio Agirresarobek Javier anaiaren izenean jaso zuen saria.

detu du lan bikaina izatea". Sari horiekin batera, Asier Errastiri eta Javier Agirresaroberi omenaldia egin zieten film laburren lehia-keta eta jaialdia antolatzen duen Plano Corto elkartekoek eta, ekitaldira joandako publikoak primerako arratsaldea igaro zuen Lorea Arakistain kazetariak aurkeztu zuen ekitaldian, Mikel Areitio eta Nerea Ariznabarreta aktoreen interpretazio bikainari esker.

Neguko jaiak Oier Araolazaren eskutik

Azaroaren 5ean, Oier Araolazak neguko jaiari buruzko hitzaldia eman zien Biharrin-Dantzan gunean, AEK-ko ikasleei. Bertan, Santu guztien egunetik Gabonak arteko festei buruz aritu zen: eske-errondak, argitasuna, koko-jantziak eta beste hainbat kontu interesgarri jorratu zituen. Antropologoaren arabera, lehen festa herrikoioak zirenak, gaur egun merkataritza-industriak guztiz eraldatu eta txirotu ditu. Hitzaldian zehar, Santu guztien eguna, Gaztainerre, Halloween, San Martin, Santa Luzia eta Olentzerori buruz jardun zuen, besteak beste. Jai guztien ardatzak jantzia eta argia direla esan zuen eta, bere arabera, "festa guztiek zituzten antzerako ezaugarriak, baina leku bakoitzean desberdin ospatzen ziren".

Esandakoaren arabera, lehen garrantzi handiagoa zuten Domusantu egunaren osteko jaiak; gaur egun, berriz, pisu han-

diagoa hartu du Halloween-ek. Hala ere, jai horien artean hainbesteko alderik ez dagoela pentsatzen du eta, hori azaltzeko, hainbat adibide eman zituen: "Lehen Euskal Herriari arbiak erabiltzen ziren jendea beldurtzeko, gaur egun Halloween-en kalabazak bezala. Gainera, eske-errondetan 'trick or treat' nagusitu zen merkantilizazioaren eraginez. Horren aurrean garai bakoitako esamoldeak berreskuratzen eta birmoldatzen ari dira hainbat herritan. Eibarraren adibidez, 'Xanduli, manduli, kikirri... eman goxokiak guri!' esaten da".

Olentzerori buruz ere luze aritu zen Oier, eta haren jatorria eta bilakaera azaldu zituen. Hasieran sutan enborra jartzen zuten, eta mutur batean aurpegiak marrazteari ekin zioten. Geroago, neguko jai gehienetan bezala, eske-errondetarako erabiltzen zuten panpin beldurgarri bilakatu zuten. Gaur egun, Oierren hitzetan, "mer-




kataritza industriak 'papanoelizatu' egin du Olentzero, kontsumoa bultzatzeko". Ondorioz, jaiak lehen baino askoz pasiboagoak, uniformeagoak dira. Hitzaldia oso giro onean egin zen, eta pozik atera ziren ikusentzuleak.

Legarreko "ospitalekoak" abesten jarri zituzten Kaleetan Kantuz taldekoek

Aurreko astean, martitzenean, San Andres egoitzara joan ziren Kaleetan Kantuz taldekoak, han bizi diren zaharrei eta zaintzaileei hainbat kantu eskaintzeko. Kantaldiarekin animatuta, egoitzan bizi direnetako askok eurekin bat egin zuten eta ederto ibili ziren kantuan.





Sara Vistah Band-en blues kontzertua bihar ERMUAN

Country & western musika generoko izen handienetakoa da bihar 20:00etatik aurrera Lobiano kultur etxean joko duen londrestarra. Musika sortzen du Sarahek eta ongi asko jakin izan du Ingalaterrako rockabillyaren esparruko Jeff Mead gitarrista beteroaren eta The Montecristos taldeko baxu jotzaile ohi Emmaren laguntza bereganatzen. Spaghetti westernak, filmetako soinu bandak, country & western ilun eta arriskutsua eta rock and rolla maite badituzu, aukera bikainaren aurrean zaude. Sergio Leone, John Ford eta Sam Peckinpah zuzendarien filmak dira egile honen iturri.



Ines Osinagaren kontzertua etzi SORALUZEN

Domekan 12:30ean hasiko da Soraluzeke Herri Antzokian Ines Osinaga musikariak "Alutik" lan berria aurkezteko emango duen kontzertua (ateak 12:00etan zabalduko dituzte). Arrasatearrak bakarkako bira laburra hasi du azaroan eta kontzertu kopuru mugatua eskainiko du negua amaitu bitartean. Kontzertua Musika Eskolak antolatatu du, Udaleko Emakumeen Topagunearen laguntzarekin.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Augusto Artamendi Okaranza.** 93 urte. 2019-XI-6.
- **Mª Teresa Irisarri Tejada.** 87 urte. 2019-XI-6.
- **Ramona Metola Garcia.** 83 urte. 2019-XI-9.
- **Jose Luis Martinez Rodriguez.** 75 urte. 2019-XI-10.
- **Mª Asuncion Marron Valles.** 94 urte. 2019-XI-11.
- **Jose Ugarteburu Arrillaga.** 66 urte. 2019-XI-11.
- **Manolo Cuartero Pola.** 88 urte. 2019-XI-12.

jaiotakoak

- **Selouka Bouhadi.** 2019-XI-2.
- **Oier Lejardi Etzaniz.** 2019-XI-5.
- **Markel Soraluze Ganboa.** 2019-XI-5.
- **Eneko Laskurain Telleria.** 2019-XI-9.

farmaziak

- Barixakua 15**
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Zapatua 16**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 17**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 18**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 19**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Eguaztena 20**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguena 21**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 22**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

2	8	4	1	3	6	9	5	7
5	1	3	4	9	7	6	2	8
9	6	7	2	8	5	3	1	4
3	5	8	6	4	9	2	7	1
4	9	1	8	7	2	5	3	6
7	2	6	5	1	3	8	4	9
1	4	2	9	5	8	7	6	3
8	3	5	7	6	1	4	9	2
6	7	9	3	2	4	1	8	5

8	5		9	4				
2			6	1				
		9	5					
4	8		5		2	1		
		2	4		1	8		
	1	6		8		4		7
				5	1			
			9	2				3
			8	7		9	4	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 15

OKUPAZIO JARDUNALDIAK

17:00. Tailerrak (argia, sarraillak, serigrafia...).

22:00. Sub-bertsio gaua: DJ Joxefina. Gaztetxean.

BIDEO-FORUMA

19:00. "Una mujer fantástica" (Sebastian Lelio) filmaren inguruko bideo-foruma. Pagatxa emakume elkartearen eskutik. Dinamizatzaileak: Izaskun Rodriguez Elgoro eta Stacy Velasquez. Jarduera irekia eta doakoa. Portalean.

MODA DESFILEA

19:00. Moda desfilea eta musika emanaldia (Lorea Ojanguren eta gitarrataldeko Vicente, Begoña eta Isabel). Untzagako jubilatuetan.

ANTZERKIA

20:30. "Elisa y Marcela" (A Panadaria). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokian.

Zapatua 16

TOPAKETA

09:15. Psikologo Euskaldunen III. Topaketa, UEU eta Bizkaiko psikologoaren Elkargo Ofizialaren eskutik. Markeskua jauregian.

TXAPELKETA

11:30. Eibarko 4. Berakatz-zopa txapelketa, Sare-ren eskutik. Untzagako.

MANIFESTAZIOA

12:00. Pentsio duin eta publikoen aldekoa, Debabarreneko pentsionista plataformak deituta. Untzagatik abiatuta.

OKUPAZIO JARDUNALDIAK

12:00. Mahai-ingurua.

15:00. Bazkaria (tiketak Belekun). Kalia okupatu.

21:30. Kontzertuak: Txabela Bragas, Jaleo, Sofokaos, Irauten, Yare Collective. Gaztetxean.

PAILAZOAK

16:30 eta 19:00. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan "Bizi dantza" ikuskizun berria. 8 euro. Hezkuntza Esparruan.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Monstruos contra alienigenas" (Dreamworks). Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

POESIA

19:00. II. Poesia-derbia, Itzamnaren eskutik. Untzagako jubilatuetan (B gela polibalentean).

Domeka 17

TXAPELKETA

10:30. XVI. Eskola arteko Bakailao Txapelketa.

Udaletxeko arkupeetan.

12:30. Eibarko "Bakailao Alkorta" III. Pintxo Lehiaketa. Udaletxeko patioan.

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira

BIZILAGUNAK

12:30. Bizilagunak bazkariak. Aurretik, parte-hartzaileak Untzagako elkartuko dira.

PAILAZOAK

16:00 eta 18:30. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan "Bizi dantza" ikuskizun berria. 8 euro. Hezkuntza Esparruan.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45. Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 18

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuetan eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagako.

INAUGURAZIOA

19:15. "Larrabeiti pintor, Larrabeiti futbolista" erakusketa. Untzagako jubilatuetan.

Martitzena 19

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

ANTZERKIA

18:30. "Sarean kateatuak", Nomofobikak taldearen eskutik. Doan, toki guztiak bete arte. Portalean.

BILERA

19:00. Udalaren eta herritarren arteko auzo-bilera. Ipuruko jubilatuetan egoitzan.

PINTXO-LEHIAKETA

Eibarko tabernarien arteko XVI. Pintxo Lehiaketa "San Andres Saria".

Antolatzailea: Arrate Kultur Elkarte, EMGI, Udalaren eta ostalariaren laguntzarekin. Izena ematen duten tabernetan.

Erakusketak

Azaroaren 17ra arte:

- NERIA URIBARRIEN MARGOLANAK (Topaleku)
- "ERTIBIL BIZKAIA 2019" IBILTARIA (Portalea)
- I. OJANGUREN XXXII. ARGAZKI LEHIAKETA (Portalea)

Azaroaren 30era arte:

- ENRIQUE LORENZOREN ARGAZKIAK (El Ambigú taberna)
- TONI CATANYREN ARGAZKIAK (Eibarko Klub Deportiboa)
- SILVIA TARDÍO, ESTRELLA TARDÍO ETA FERNANDO SOLANAREN ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)

Abenduaren 1era arte:

- "SUKALDATZEN MADE IN EIBAR" (Armagintzaren Museoa)
- "LARRABEITI PINTOR, LARRABEITI FUTBOLISTA" (Untzagako Jubilatuetan)

Eguaztena 20

SANTA ZEZILIA

17:00. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Santa Zezilia kalejira. Portalean hasita.

BILERA

19:00. Udalaren eta herritarren arteko auzo-bilera. Coliseo antzokian.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

PINTXO-LEHIAKETA

Eibarko tabernarien arteko XVI. Pintxo Lehiaketa "San Andres Saria". Antolatzailea: Arrate Kultur Elkarte, EMGI, Udalaren eta ostalariaren laguntzarekin. Izena ematen duten tabernetan.

Eguena 21

IKASTEN

10:00. "Elikadura, ongizatea eta bizi-kalitatea XXI. mendean" hitzaldia, Silvia Zuluaga sendagilearen eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskolan.

BINGO BEREZIA

16:00. Bingo berezia. Untzagako jubilatuetan.

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatuetan.

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

BILERA

19:00. Udalaren eta herritarren arteko auzo-bilera. Amañako parrokiaren.

PINTXO-LEHIAKETA

Eibarko tabernarien arteko XVI. Pintxo Lehiaketa "San Andres Saria". Antolatzailea: Arrate Kultur Elkarte, EMGI, Udalaren eta ostalariaren laguntzarekin. Izena ematen duten tabernetan.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, GARI, hillairen 6xan 5 urte egin zenduazelako. Patxo potoluak etxeko txikixandako, batez be, Ekainen partez.



Zorionak, EKHI, martitzenian 9 urte bete zenduazena-eta! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Maddiren partez!!



Zorionak, JOSU!, martitzenian 6 urte bete zenduazena-eta. Laztan haundi bat zure anaixa Xabier eta famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, 3 urte egin dozuz-eta, mutil haundi! Milla musu Iraia eta Martxel, aitita eta amama eta famelixaren partez.



Zorionakkkk, MAIALEN!!!, hillairen 20xan 3 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, YARA! Poztasunez betetako 7 urte egin dozuz-eta. Milla musu, gominola, etxeko danon partez.



Zorionak, MANEX!!, gaur 5 urte betetzen dozuz-eta. Patxito haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN!!, gaur 7 urte egiten dozuzelako! Etxeko guztien partetik, musu potolo pilla bat!!



Zorionak, IRATI eta JON Aldalur, hillairen 13an 8 urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bana gurasuen eta aitxitxen eta amamen partez.

(ANTZOKIAN)
16an: 17:00
17an: 17:00

"Abominable"

Zuzendaria: Jill Culton



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
16an: 19:45, 22:30
17an: 20:00
18an: 20:30

"Ventajas de viajar en tren"

Zuzendaria: Aritz Moreno



(2 ARETOAN)
16an: 19,45, 22:30
17an: 20:00
18an: 20:30

"Sorry we missed you"

Zuzendaria: Ken Loach



(ANTZOKIAN)
16an: 17:00(1), 19:45, 22:30
17an: 17:00(1 ARETOA), 20:00
18an: 20:30

"Estafadoras de Wall Street"

Zuzendaria: Lorena Scafaria



(2 ARETOAN)
16an: 17:00
17an: 17:00

"La oveja Shaun"

Zuzendaria: Will Becher



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komunak. 85 m². Berogailuarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

- Lau irakaslek pisua hartuko lukete Eibarren alokairuan. Bermearekin. Tel. 634-419894.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Bulegoa salgai Bidebarrieta 27ko 2. solairuan. 30 m². Kanpora begira. Zerbitzu orokorrekin. Prezioa adosteko. Tel. 607-658356.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Arrate Bidean, beheko solairuan. 95 euro hilean. Tel. 658-724552.
- Garajea alokagai Ipuruako dorreetan. Tel. 943-700173 eta 629-453397.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610-800063.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Tel. 612-574783.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-434249.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 663-522072.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan edo dendan lan egiteko. Tel. 666-843393.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Tel. 631-628807.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-630372.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-137348.
- Neska eskaintzen da tabernak, pegoarak edo etxeak garbitzeko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Tel. 642-250488.
- Emakumezkoa eskaintzen da Durangon nagusiak zaintzeko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Esperientziarekin. Tel. 644-558390.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 635-587617. Margarita.
- Emakumezkoa eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 602-850826.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 682-277198.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Tel. 631-576491.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburu arratsaldeetan ere. Tel. 607-417638.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 697-754174.
- Neska euskalduna eskaintzen da denda edo harrera-gune batean lan egiteko. Esperientzia. Tel. 635-706717.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauez eta ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 677-048696.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-229408.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Tel. 602-188264.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-292690 eta 659-033477.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 688-714388.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 643-076427 eta 612-514135.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 658-385055.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-241311.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-415374.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Esperientzia. Tel. 632-506382.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-330459.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-378568.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 661-718993.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauez eta ospitalean ere. Tel. 617-896989.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 666-197831.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 641-630794.
- Mutila eskaintzen da pintore moduan, igeltsero-laguntzaile bezala, etabar. Tel. 632-636393.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Orduka. Tel. 632-098382.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Tel. 631-980531.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Ziurtagiriarekin. Tel. 641-426543.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Tel. 688-871659.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Tel. 602-017736.
- Mutila eskaintzen da igeltsero, pintore edo tabernari lan egiteko. Tel. 661-718953.
- Emakumezkoa eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 632-515023.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburu eta ospitalean ere. Tel. 631-768803.

4.2. Langile bila

- Grafiteroa behar da etxea apaintzeko. Tel. 689-232882.
- Dekorazioa behar dugu Eibarko denda dekorazio batean. Bidali curriculum: m.c.agirrezabal@gmail.com
- Emakumezkoa euskalduna behar da arratsalde umea lau orduz zaintzeko. Tel. 619-150710.
- Kamarera/o behar da Eibarren egun osorako. Bidali curriculum: tre@euskalnet.net
- Sukalde-laguntzailea behar da. Bidali curriculum honako helbidera: bar.oferta-empleoeibar@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Pertsona behar da asteleheneetik eguenera LH1-eko 4. mailako klase partikularrak emateko. Tel. 699-476137 edo whatsapp bidez.

5.2. Eskaintzak

- DBH edo Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Matematika, Kimika, Fisika, Lengoia eta Ekonomia. Tel. 678-987827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ohe artikulatua (0'90) salgai. Koltxoia eta almohadarekin. Tel. 671-258740.
- Kafetera expres (Fagor) salgai: bi tatak. 30 euro. Tel. 659-538158.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko domekan gizonezko ezkontza-eraztuna galdu da Ipuru inguruan. Barritu grabatuta dago. Tel. 650-073897.
- Urriaren 27an umearen erlojua (beltza eta gorria) galdu genuen Barrera-Saratsuegi inguruan. Tel. 635-740726.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Gironik omelean

Calbeton, 6

18.

urteurrena

eskerririk asko

azaroaren



22^{an}



AZAROAREN

16^{AN}

16:30 ^{ETAN} ETA

19:00 ^{ETAN}

AZAROAREN

17^{AN}


16:00 ^{ETAN}

ETA 18:30 ^{ETAN}

BIZI
DANTZA

SARRERAK
SALGAI (8€)

Internet bidez
Kutxabank-en
eta txarteldegian



PiRRITx, PORROtx eta MaRiMOTOts



Zezenbide
S.COOP.

EIBAR

**LASTER
ERAIKIKO DIRA**



**AUKERA
EZIN
HOBEA**

9



ETXEBIZITZA KOOPERATIBAN

**HIRU LOGELAKO ZORTZI ETXEBIZITZA
ETA LOGELA BAKARREKO
ETXEBIZITZA BAT**, euren trasteleku eta
sukalde ekipatuarekin.

Erdi-erdian, Isasi eta Zezenbide
kaleetako izkinan. **Untzaga Plazatik
metro gutxi batzuetara.**

KUDEAKETA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

FINANTZAKETA:



Larragest
AGENCIA INMOBILIARIA

bankoá CAE
Groupe
Crédit Agricole

943 20 00 12 / 660 976 156

www.zezenbide.com